

**Gehigarri bereziak**

Elizondoko Feriak eta Santu Guztien eguna

BERA → 15

XXVI. Lurraren Eguna urriaren 28an

DONEZTEBE → 23

Merkatari Elkartearen kanpaina saritu dute

LEITZA → 32

V. Mikologialdia egingen da urri bukaeran

BAZTAN → 34

Kirikoketa Besta urriaren 20an

ANFASen aldeko egutegi solidarioa suhiltzaileen laguntzarekin

Baztan-Bertizaranako 5 argazkilarik sortu berri duten **Itxusi Elkarteak** argitaratu du eta salgai egonen da Elizondo, Doneztebe eta Lesakako Ferietan eta Lurraren Egunean Beran → 49

**ELKARRIZKETA → 3**

Sukil Etxenike, ingeles filologia ikasi nahi duen gazte itsua

**ERREPORTAJEA → 4-5**

Herrietako dendak egoera zailari buelta eman nahirik

IKURREN AFERA → 30

Espainiako bandera jartzea eskatuz eskutitza jaso dute zenbait udaletan eta «ikurrak ezin direla inposatu» dioen mozioa onartzen ari dira. Beran urriaren 20an aldarrikapen besta egingen da.

ZOZKETAK → 51

Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora



AROZ - BERRI

IRURITA | ORIKAIN
 Tf 948 581021 | Tf 948 332617
 Fax 948 452103 | Fax 948 360924

ONGI PASA FERIAK!



www.mueblesordoki.com

Plaza Zaharra, 27 | Erakusketa: Otsango industrialdea, 5 | LESAKA
 T. 948 637 780 | e-posta: info@mueblesordoki.com

*** PlanB!**



Edozein ALTZARI EROSTEAGATIK Asteburuko ateraldia opari*

Baldintza: 500€tik goitiko gastuetan | Eskaintza baliagarria 2013ko urtarrila arte




**SUKALDEAK | DEKORAZIO PROIEKTUAK | EGONGELAK | LOGELAK
 ARMAIRU ENPOTRATUAK | ILUMINAZIOA | SOFAK | OSAGARRIAK**



Sukil Etxenike Narbarteko gazteak hamasei urte ditu. Hiru hilabete zituenean galdu zuen ikusmena. Mundua begiekin ikusi beharrean, belarriekin ikusten du geroztik, soinuen bidez

baliatzen baita. Bere ingurunean integratua sentitzen dela dio, baina bai berak eta baita ingurukoek ere ahalegin hori egin izan ez balute, integrazioa ez zela posible izanen

aitortzen du. Zailtasun eta oztopoak izanen dituela dakien arren, unibertsitatera joan eta ingeles filologia ikasi nahi du. Hori lortzeko bere eskuetan dagoen guztia eginen du.

Sukil ETXENIKE | Narbarteko gaztea

«Nahi dudana izatera iritsi nahi dut, nahiz eta bidea ez den erraza izanen»

E. IRAOLA | NARBARTE

Sukil Etxenike...nor dago izen-abizen horien gibelean?

16 urteko mutil bat, itsua eta lan egiteko prest dagoena. Jende normal batena bezalakoa da nire egunerokoa. Batxilergoa Lekarozko institutuan egiten ari naiz. Asteburuetan deskantsatu, ordenagailuan ibili, irakurri eta musika entzuteko ohitura dut. Bertsotan aritzeko afizioa ere badut. Donetztebeko bertso eskolan aritzen naiz.

Ikusmen gabezia asko nabaritzen al duzu?

Hiru hilabete ondoren hasi zitzaidan erretina izoztuz eta kontua da, ni ez naizela oroitzen nola den ikustea. Ez naizenez oroitzen, ez dut falta hori asko sumatzen. Ikusmena gehienetan ez da behar bat niretzat. Mundua soinuen bidez bizi dut. Hala ere, gaur egun gehiena itxura da, garrantzia gehiegi ematen zaio ikusmenari.

Makilaren laguntza izaten duzu...

Bai, baina makila erabiltzeko aurrena tokia ezagutu behar da. Nora joan behar duzun jakin behar duzu, makila ez baita gps bat. Makilak oztopoak eta nabaritzeko baliu du, baina tokia ez baduzu aldeztu aurretik ezagutzen alferrikakoa da. Nik institutuan bakarrik erabiltzen dut makila,



TTIPI-TTAPA

Sukil Etxenike Narbarteko gaztea herriko plazan.

etxean ez. Etxean ikasia dut makilarik gabe ibiltzen, ateak, paretak erreferentziatzen hartuta ditut eta ez dut makilik behar. **Kalean bakarrik mugitzea ez da erraza izango orduan...**

Egia erran ez naiz gehiegi mugitzen eta egiten dudanean, beti norbaiten laguntzarekin mugitzen naiz. Kotxeak azkar ibiltzen dira, zuloak daude eta bideak ere jakin egin behar dituzu.

Ba al dago itsuen inguruko estereotiporik?

Dezente daude, famatuenak da itsuek hobeki aditzen dugula. Ez dakit horrela den, soinuen bitartez mugitzen gara bai, baina ezizatez entzume-

INTEGRAZIOA

«Bi faktore hartu behar dira kontuan. Inguruko jendeak zer egiten duen eta itsuak berak egiten duena. Inguruko jendea prest badago eta itsua saiatzen bada, integrazioa egonen da. Baina bi faktore horietako batek huts egiten badu, itsua baztertuta sentituko da. Nik nire inguruan suertea izan dut. Laguntza behar dudala nabaritzean ematen didatelako. Eta neroni ere saiatu egiten naiz. Badakit jendea non dagoen eta beraiengana joaten naiz.»

na garatuagoa dugulako, nik uste arreta gehiago jartzen dugulako dela. **Irakurtzeko afizioa aipatu duzu. Non lortzen duzu materiala?** ONCEn eskuratzen dugu. Euskarazko liburuak lortzea zailagoa da, baina nik gehienak gazteleeraz irakurtzen ditut. Idazteko ordenagailua erabiltzen dudana arren, irakurtzeko brailea erabiltzen dut. Liburu aunitz transkribituak daude, baina transkribituak ez daudenak transkribitzeko eskatu behar da. Adibidez eskolako materialarekin beti pasatzen da. ONCEk egiten du lan hori. Gure sistemak duen partikularitatea da, ezin dela le-

tra tamaina txikitu. Orduan liburuak tamaina handiagokoak dira eta horregatik liburu pila bat daude liburu bakarrarendako.

Baduzu harremanik beste itsuekin?

Bai. ONCEko itsuekin harreman handia dut. Iruñean, adibidez, bi lagun elkartu eta ikastaro batzuk egiten ditugu. Arropa doblatzen, janaria prestatzen... ikasten dugu. Eta kanpamenduetan ere izan naiz. Aurten Pontevedran izan gara. Ingelesa ikasi, jolasean aritu. Espainia osoko jendea elkartu ginen. Nire taldean 20 bat lagun zeuden.

Etorkizunari begira, zer amets dituzu?

Ingeles filologia ikasi nahi dut, oraindik ez dakit zein unibertsitatetan, baina urtebete falta da eta badut pentsatzeko denbora. Kanpora joan behar badut badakit zaila izanen dela. Arriskua, toki berri bat, hor ez dela hainbertze laguntzarik izanen. Baina joan behar baldin bada joan egingo naiz. Nahi dudana izatera iritsi nahi dut, nahiz eta bidea ez den erraza izanen. Horrelakoetan, institutuan pasa den bezala, ONCEkoak etorriko lirareteki bi edo hiru egun lehenago tokia ezagutaraztera, eta bestela bakarrik moldatu beharko naiz, zer erremedio!



“Buelta eman nahi diogu” kanpainan parte hartu duten Doneztebarrak Merkatarien Elkarteko kideak, sariarekin.

HERRIETAKO MERKATARITZA → Egoera larrian dagoen sektorea

Laino beltzenen artean argia ikusi nahian dabilta eskualdeko merkatariak

Egoera ekonomiko latzak, merkataritza zentro handien eskaintzak eta jendearen ohitura aldaketak kinka larrian jarri du herrietako denden etorkizuna

Bezeroak erakartzeko kanpainak, eskaintza bereziak... ez dira geldirik egotekoak. Beraien eskuetan dagoen guztia egiten ari dira aitzinera jarraitzeko. Bezeroak behar dituzte

eta horretarako herritarren kontzientzia aldatu behar da. Oztupoak baino ez dituzten arren, denda irekita dagoela paratzen duen karteltxo atean jarri nahi dutelako luzaroen.

E. IRAOLA

Garai hobeeekin ametsetan ari dira eskualdeko merkatariak azkeneko urteetan. Etortzen ez diren garai hobeeekin. Ditzuten be-

zeroei eutsi eta berriak erakarri nahi dituzte, baina geroz eta gehiago dira autoa hartu eta merkataritza zentro handietan erosteko ohitura dutenak. Jende heldua da

herrian erosten segitzen duena, baina gazteek ez omen dute horretarako ohiturarik. Kezka handia sortzen dieten gaia da, etorkizunik izatekotan gazteek herri-

an erosten hasi beharuko luketeela uste baitute. Dendariek jendearen kontzientzia eza salatzen dute. Dendak atek betiko ixten dituztenean penatu bai, baina herritarrek aitzinetik bertan erosteaz ahanzten direla nabari dutelako.


Saltoki handien aurka lehiatzeko ez dute nahikoa indarrak, haiek produktu aukera zabalagoa eta etengabeko deskontuak eskaintzen dizkietelako bezeroei. Hala ere, merkatari tikiak ez dira handien itzalpean geldirik geratu. Ematen duten tratu hurbila dute beraien alde eta bezeroa zaintzea bihurtu da beraien egiteko nagusia. Horretarako, fidelizazio kanpainak, arreta bereganatzeko ekimenak, eskaintza bereziak, zozketak... egiten dituzte. Merkatari taldeetan biltsen dira batzuk, denen indarrak batzeko, bakarka lan egiten dute

ber-tzeek, geldirik ez egotea da kontua. Gehienek, hala ere, kalitatezko produktuak eskaintzen jarraitu eta prezioak jeitsi behar izan dituzte, irabazien kaltean. Baina hori da aurrera segitzeko duten aukera guttienetarikoa.

Gainera, BEZ-aren igoerak ere ez die mesederik egin. Produktuak garestiago erosten dituztenez, irabazirik lortzekotan prezioak igo behar dituzte. Prezioa jartzea lan zaila bihurtzen da orduan. Bezeroak erakarri, BEZaren igoerari aurre egin eta irabaziak emango dizkieten formula lortzea ez baita lan erraza.

Etorkizunak, ikara ematen die, baina ez dute esperantza galdu nahi. Ahal den moduan aitzinera egin nahi dute, dendetako mostradorearen gibelean segitu nahi dutelako urte luzez lanean.

ESKUALDEKO MERKATARIEKIN SOLASEAN



**Deñe ABUIN
LESAKA**

«Gazteengana hurbildu behar dugu, etorkizuneko bezeroak dira»

«Lau urte daramatzagu maldan beheiti eta ez dakigu non bukatzen den, arront beltz dago dena». Hala dio Deñe Abuin lesakarrak egoerari buruz galdetzen diogunean. Duela 23 urte zabaldu zituen atek dendak eta bere iduriko «itxi baino lehen edo zer egiten saiatu behar zara». Teknologia berrien aldeko apustua egin du «sozialki sarean egon behar dugu, erakuslehoa baita». Abuin enrranetan zerbitzu ona eskaintzea da irtenbide bakarra «gauzak probatzeko etxera eramaten uztea, itzulketetarako erraztasunak ematea eta tratu hurbila eskaintzea». Azken hau azpimarratu du, «saltoki handietan txartel zenbaki bat da bezeroa. Hemen denok ezagutzen dugu elkar». Etorkizunak beldurra ematen dio «dena nahiko hila dago». Hala ere, ez du esperantza galdu «datoren datorela aurrera egin behar dugu». Landu beharreko esparruaz galdetean ez du zalantzarik «gazteengana hurbildu behar dugu, etorkizuneko bezeroak direlako».



**Lorea AGIRRE
DONEZTEBE**

«Merkataritzarik gabeko herria, hildako herria izanen litzateke»

Kimetz Belar dendako jabearen iduritan jendeak kanpoan erosteko ohitura du eta beranduegi ohartzen da herrian ez kontsumitzeak duen eraginaz «denda tikiak ixtean denok pena hartzen dugun arren, merkataritza zentro handietara joateko ohitura handia da eta ez da baloratzen bertan dagoena». Merkataritza herriak bizirik mantentzeko ezinbestekoa da bere hitzetan «merkataritzarik gabeko herria, hildako herria izanen litzateke». Bezeroak erakartzeko ekimen aunitz jarri dituzte martxan «fidelizazio kanpainak, deskontu bereziak, ekimen berriak, Urriaren 11ko feria eta gure produktuen kalitatea mantendu dugu prezioak egokituz». BEZaren igoerak ez die lagundu «badirudi prezioak goitu ditugula baina ez dugu bertze erremediorik, guri prezio guztiak goitu dizkigutelako». Etorkizunari buruz zalantzak ditu «jendeak ohiturak aunitz aldatu behar harko ditu, bertan gehiago kontsumituz, guk herrian lan egiteko aukera eduki dezagun».



**Fran AGARA
BERA**

«Orain prezioak kalitateak baino garrantzia handiagoa duela dirudi»


1928an sortu zen Agara denda eta azken berrogei urtean Fran Agara dago erakusmahaiaren gibelean. Kriaren eragina egunerokoan arras nabarmena dela dio «kontsumoa pila bat muriztu du jendeak» eta kontsumitzeko modua ere aldatu du «orain prezioak kalitateak baino garrantzia handiagoa duela dirudi». Jendea dendara sartzeko modua bilatu behar dutela pentsatzen du, uste oker aunitz baitaude bere iduritan «badirudi batzuetan herriko jendea dendara sartzeko beldurra ematen diola, erosteko obligazioa dutela pentsatzen dutelako. Sartzan direnean ikusten dute dagoena ikusi eta gero arte erran dezaketelatasai». «Merkataritza zentro handiek lortu duten arrakasta ikusita kezka ere azaldu du, «boom bat izan da, jendea ez da erostera bakarrik joaten, aisialdia eta erosketen arteko lotura egitea lortu dute». Etorkizunari begira, ez da oso baikorra, bere ustez «lau urte beharko dira behinik behin, argia pixka bat ikusteko».



**Jaime VIGURIA
ELIZONDO**

«Eskaintzekin irabazia ttikitu arren, salmentak mugitzea da kontua»

Jaime Viguria Elizondoko Eskiz informatika dendako jabearen iduriz, eskaintza onak dira aitzinera egiteko modua «deskontuekin irabazia ttikitu arren, salmentak mugitzea da kontua». Bezeroek ez dutela eskaria aldatu dio baina prezioari begiratzen diotela «alde handirik ez dugu nabaritzen eskarian, normalean merkeena izaten da hautatzen dena». Jaimek dioenez, saltoki handiek kalte handia egiten diete «zentru koxkorrek min handia egiten segitzen dute, hain xuxen prezio arras baxuak eskaintzen dutelako. Horren kontra, zaila da borrokatzea». Modu bakarra «zerbitzu ahal bezain finena ematea, hurbiltasuna, gure gain konfiantza izatea lortzea» dela dio. BEZaren igoera nabaritu badu ere, gauza lasaitzen doala uste du «irail hasmentan nabaritu zen, orain iduri du gauza normaltzen ari dela». Viguriak ez du etsitzeko asmorik «beltz ikusten dut etorkizuna goititik ikeratzen baikaituzte. Hala ere, egoera txar honi eusten saiatuko gara».



**Estitxu LERTXUNDI
LEITZA**

«Egoerarekin batera, gu ere aldatzen saiatzen gara»

Duela bost urte ireki zuten Leitza Ariztela denda eta kriaren eraginez, jendearen pentsaera aldatu egin dela dio Estitxu Lertxundik «opari bat erosteko garaian, lehen jende gutxi pentsatzen zuen maindreak oparitu zitezkeenik, orain estimatzen den oparia da». Kriaren aurrean neurri berriak hartu dituzte «egoerarekin batera gu ere aldatzen saiatzen gara eta orain beti daukagu eskaintzaren bat. Eskaintza jartzen dugun jendea segituan mugitzen dela nabari da». Lertxundik dio zaharberritze lanak egiteko ohitura zabaltzen ari dela «jendea gauzak konpontzen hasi da berria erosi beharrean». Jendearen ohiturez dio «bezero leialak ditugu baina normalean, kanpora joateko denborarik ez dugunean oharitzen gara herrian komertzioa edukitzearen mesedeaz». Etorkizun «zaila ikusten dugu baina gure ofizioan ilusioz beterik segitzen dugu. Ea zertan bukatzen duen gure herrietako komertzio txikiak».



Nire txanda
Luis GARDE

Udazken honetako koloreak

Oi, udazkeneko koloreak, poeta eta abeslari euskaldun guztiok laudatuak eta kantatuak. Garai txarrak hauek, hala ere, lirikarako. Zeren eta udazken *honetako* koloreak aipatzen baditugu, tonua aldatu beharko dugu, gure melankolia zahar eta lanbrotsu hartatik depresio sakon hutsera joanez. Hainbertze maite ditugun koloreak ere aldatzen dira. Hostoen gorria Madrileko eta bertze hirirako poliziak ateratako odolaren gorria bilakatu da. Morea, kolpatutako manifestalarien zaurien morea. Morea ere Rajoyren nagusiek Suitzan kontzen dituzten billeteen kolorea. Horiak, langabetuen aurpegiak, itxaropenik gabekoak. Marroiak, okreak, arreak, barkatuko didazue, gure baimenarekin sartzen ari gaituzten karekarena, garai bateko proiektuak eta ilusioak lapurtu dizkiguten ondoren.

Zeruko gris iluna? Gure seme-alaben etorkizunarena, kapitalismo basatiaren bide honetatik desbideratzeko kapaz ez bagara.

«Zeruko gris iluna? Gure seme-alaben etorkizunarena»

Ezpala

Aitor AROTZENA

(ZZ) Zugarramurditik Ziordiarra

Azpiegiturak arrazionalizatzeko mapa administratibo berria egin nahi du Nafarroako Gobernuak. Sei Mankomunitate bertzerik ez ditu utzi nahi. Honela, Zugarramurdi eta Sakanako Ziordiarra mankomunitate berean egonen lirake (2 ordu eta 23 minutu Donostian barna; 2 ordu eta 6 minutu Iruñean barna). Ordu eta 50 minutuz Pauen dago zugarramurdiar bat. To arrazionalizazioa!

Nabarmentzekoak



Unai BERTIZ
Sunbillako harrijasotzailea



Patxi VILA
Txirrindularitza utzi du




Jose Javier ESPARZA
Onddo eta zizen kofrade

Uda partean izan zuen lesioa gainditu eta bosgarren urtez segidan Nafarroako harrijasotzaile txapelketa nagusitasunez irabazi zuen Igantzin, San Migel egunez, 6.125 kilo altxatuta.

Beghelli sari nagusia txirrindulari profesional bezala bere azken lasterketa izan dela adierazi du. Bere kirol ibilbidean lagundu diotenei ere eskerrak eman dizkie eskutitz bidez.

Nafarroako Gobernu kontseilari izendatu dute Elgorriagako kofrade berri, Embudidos Burgos enpresako Alberto Rios eta Cruzcampoko Jose Luis Cepedarekin batera.

Azterera begira → 1999.10.07 / TTIPI-TTAPA 263. zbk



Bi aste euskaldunen Ameriketara, Estitxu Arozenaren eskutik

North American Basque Organization (NABO) erakundeak gonbidatuta joan ziren Nevadako Renon (AEB) egiten den Aste Nagusira Euskal Herriko musika talde eta bertsolari batzuk. Horien artean zegoen Estitxu Arozena lesakarra. «Egitaraua da guttienekoa, Euskal Astearen helburua han bizi diren euskaldunak elkartzea baita» zioen bertsolariak. Bi aste eman zituen eta han laketutako euskaldunen bizimodua ezagutzeko modua izan zuen. Euskalduntasuna gatazkarik gabe bizi zutela zioen. Horren erakusgarri, Mugairiko Esteban Goñiren solasak: «Nik bertsoak, aizkora eta pilota, ez dut bertze deus nahi!».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usosa Vicente, Amaia Odriozola **Berriemaileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Goñi, Joana Guereniain, Martin Bertiz, Nerea Tellebea, Martin Larraide, Juan Mari Barriola.

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2012ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria38€	Europa56€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka32€
Ipar Euskal Herria56€	Amerika eta Australia124€	Leitza16€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

San Ferminetako feria

Jexux BULDAIN

UPNk adierazi du, datorren urtetik aurrera, ez dituela antolatuko San Fermin eta San Miguel egunean ospatzen diren zaldi-feriak. Arguratu duen aitzakia: iruñeko hiriari, onurarik ez omen dio ekartzen. Dudarik gabe, argudio makala eta, batez ere, arina. Nafarroako Gobernua, nafar guztientzak lan egin behar du eta ez bakarrik iruñarrentzat. Zaldi feriak, batez ere, San Fermin egunakoa, tradizio handikoa izateaz gain, estatu espainiarrean toki askotan ezaguna da eta Frantziako hegoaldean ere bai. Horrelako erabaki bat hartu aurretik, informazioa eskuratu eta kontuan hartu behar da, sortzen diren eraginak. Zaldi feriak, zaldiekin lan egiten dutenentzat, merkatu bat da. Hauek aukera dute urte osoan zaindutako zaldiak hara eraman eta ahalik eta diru gehiena eskuratzeko. UPNk hartu duen erabakia aurrera ateratzen baldin bada, gure inguruko herrietan bizi diren zaldizainek, galera handiak izango dituzte. Merkatua murriztu egingo zaie eta etsipenarekin, batek baino gehiagok, zaldiak zaindu eta izatearen tradizioari bukaera emango dio. UPNk hartu duen erabakia, zaila egiten zait uler-tzea! Baliteke, ezkutuko interesak egotea. Beti bezala, boteretsuak gehiago nahi dute eta merkatu-desagerpenarekin zaldizain txikiak beraien esku gelditzen dira. Zaldien sektorea, oso zapalduta dago eta oraindik gehiago zapadu nahi dute. Aldiz, sektorearen gainean dauden boteretsuak, gero eta diru gehiago irabazten ari dira. Nafarroan jaiotako zaldi gehienak, Valentzia, Bartzelona, Madril eta batez ere Italian kontsumitzen dira. Zaldi haragiaren behar handia dago! UPNk hartu duen edo hartzekotan dagoen erabakiarekin, herrietan bizi diren zaldizainen eskubideak zapaltzen dira. Zaldizaintzat, zaldiekin bizitzea, lanbide eta bizi ohitura bat da. Urte osoan beraiekin bizi dira! Hauek egiten duten lanaren ondorioz, gure inguruko mendiak garbiagoak mantentzen dira. Inoiz ez zaie modu horretara baloratu, baina desagertzen badira, gogoratuko gara beraietaz. Kontu hau zabaltzearen aldekoa naiz. Onura ekartzen diguten ohiturak, mantentzearen aldekoa naiz eta erabaki honen aurka borrokatzeko, prest nago! UPN gobernua egon arren, nire iritzian horrek “ez dio eskubiderik ematen ehun urte baino gehiago duen tradizio bat bertan behera uzteko”. Are gutxiago argudio nagusirik gabe! Nik behintzat, horrela ulertzen dut. San Fermin egunean ospatzen den feria mantentzeko indarrak batu behar ditugu. Indarrak batuz gero, UPNri ulertaraziko diogu, jende askok, gustuko dugula San Fermin feria eta tradizioari etsi nahi diogula. UPNk, hartu duen erabakiarekin, garbi da ni ez nagoela ados. Gobernua, herriak urte askotan izan eta mantendu dituen tradizioak baloratu egin behar ditu. Horiek dira herriak dituen euskarriak eta horrek ematen dio herriari identitatea. UPNk arinkeriaz jokatu du. Argudioak bilduz, erabakiari aurre egitearen aldekoa naiz.

«Nafarroan jaiotako zaldi gehienak Valentzia, Bartzelona, Madril eta batez ere Italian kontsumitzen dira»

Berriz hauteskundeak! Berriz ere beldur egoteko motiboa

Juainas PAUL ARZAK

Berriz hauteskundeak! Berriz ere beldur egoteko motiboa. Betiko sasiemoen zurrumbiloan eroriko gara non, helburua, “gu eta gutarrak” onenak garela publizitatez dirudien. Alderdikeriak han eta hemen.

Erkidegoan dagoeneko gainean dituztelako = boten ehiza garaia. Nafarroan, laster izanen direlako, elkarri muturka. Politikan ari direnek –ni ez naiz hobea– beheraldi edo depresio gogorrean erortzeko moduko giroa pizten dute. Asper-asper egoteko moduko delako, aparte sentitzen gara, urrun, horrek dakarren arrisku ikaragarriekin. Agintea, teorikoki bederen, han nonbait pilatzen da, gero eta urrunago, autonomietan, estatuetan, Europan, Munduko Bankuan... Hurbilekoak hobek?

Hainbat egoera larri, erantzun zuzenak gutti-gi. Krisialdi ekonomikoari, sozialari, kulturalari aurre egin behar zaionean –horiek izan beharko lukete lehentasuna– ohiko den bezala elkar mokoka aritzeko gauza gara. Horrek zer erakusten du? Alderdien garai hauetan, behar edo arazoaren konponketen ginetik, alderdikeriak daudela; nagusi direla gure botoa ‘erosteko’ edo lortzeko manerak jorratzea (uztartzeta = arrakasta) azpian dauden gatazka gordeak –aberastasunen banaketa, klase sozialen arteko harremanak, baztertutako kulturen babesa– konpon bidean jarri ordez.

«Behin botoa emanda, zein modua duzu zuk delegatutako agindua beteko dela ziurtatzeko? Zuzentzeko? Hurrengo hauteskundeetan esperoan gelditu besterik ez... Ez dugu boterea delegatzen, lapurtzen digute!»

Motibo aunitzen ar-

tean, bat nagusi. Behin botoa emanda, zein modu duzu zuk delegatutako agindua beteko dela ziurtatzeko? Zuzentzeko? Hurrengo hauteskundeetan espero gelditu besterik ez... orduan, agian, berritoki berdinean egoteko. Ez dugu boterea delegatzen, lapurtzen digute!

Gora errepublika! Benetako errepublika bat, hurbila, erabakitzeko gaitasunarekin, arduraz jokatzeko gaitasun arautuarekin, non agintariak botere delegatua dutelako botoemaitzen aitzinean erantzun beharko duten. Erakundearen arduraduna, beharuntz eta goruntz, tokian tokiko eta globalizatorako bideen kontrola egokituko zaio. Zerrenda irekiak, alderdirik gabekoak. Ametsa ote? Politiko profesionalen aldetik, guztiz kontrakoa ari dira prestatzen: Udal eta kontzejua murriztu, mankomunitateak eta zerbitzuak mugatu... den-dena herriaren alde eta gure hobe beharrez.

Irakurleak mintzo

Aitzaki merkea!

Joana ESTANGA
(Beintza-Labaian)

Nafarroako Gobernua aspalditik murrizketak egiten ari da, eta oraingoan, aspalditik burutan zerabilkien plana betetzeko aitzakia ezin hobea aurkitu du, krisiarena alegia.

Nafarroak mapa berria behar omen du, gaur egungo 272 udalerriki soberan ikusten ditu Gobernuak eta gastua murrizte aldera udalerririk horiek elkartzeko gonbidapena luzatu du. Gainera, hauteskundeetara hautagairik aurkeztu ez diren udalerriki eta 16 biztanletik beherako kontzejuak nahitaez desagerraraziko ditu. Oraingoan, mankomunitateekin hasi da murrizketak, 67tik 6ra murrizteko proposamena aurkeztu dute.

Aitzakia merkea da murrizketarena, hain merkea ezen urtean 3 milioi euro aurrezte aurrekusten duten. Zer dira 3 milioi Nafarroarentzat? ezer gutxi.

Zergatik egin nahi dute bada maparen berantolaketa hau? Motibo politikoengatik, ez gaitzatela engainatu. Izan ere, egungo egoera ez da eroso Gobernuarentzat, adibide bat jartze aldera, AHTa bezalako proiektu bat; gobernuak erregela hartu du eta marra zuzen bat egin du, "hemendik pasatuko da tren", berdin zaie lur horren gainean zer dagoen, nor bizi den, etab. Arazoa

zera da esate-batera 40 herri zeharkatzen ditu, hauek denak ados jartzea oso zaila da, aldiz, denak elkartu eta 40ak 5era murriztuko balira errazagoa izango da bere plana burutzea.

Nolanahi ere herrietako agintea herritarrengandik urrunago jartzea da lortu nahi dutena, bosterea kendu nahi diete herri txikiei eta bertako biztanleei. Ez nago ados, eta garbi erraten dut nik nire herria maitatzen dut eta bertakoa izaten segitu nahi dut, ez dugu kanpokoen kontrolik behar. Herri txiki hauetako ordezkariak egiten duten lanaren zati txiki bat besterik ez zaie ordaintzen, lan asko beraien borondatez egiten dute herria aurrera ateratzeko ez beste politiko handiuste horiek bezala.

Nik beste proposamen bat luzatuko diot Gobernuari: "Barcina, utzazu Gobernu" eta zure atzetik beste zerrenda luze batek ere utziko balu eskertuko genuke nafar askok.

Zitada bat
euskararen aldeDabid ANAUT PEÑA
(Leitzako Euskara
Batzordearen izenean)

Euskarazko Komunikazio Taldeak, Berria Taldea deitzen dugun horrek, zure zitada behar dugu kanpaina jar-

ri du abian. Leitzako Euskara Batzordeak kanpaina horrekin bat egin nahi du, eta Leitzako herritar eta euskaltzale guztiak ere ekimen horrekin bat egiteko animatu nahi ditu.

Euskara hizkuntza bizi eta osasuntsua izan dadin nahi badugu, euskarazko komunikabide sendoak eta biziak ere beharko ditugu, ezinbestean. Euskaraz bizi nahi badugu, horretarako bitartekoak beharko ditugu. Horren aldeko apustua egin behar dugu, beraz, eta are gehiago komunikabide horiek garai zail eta kritikoak bizi dituzten unean.

Eta hori da, hain zuzen ere, gaurko egoera. Krisiak gogor astindu ditu bazter guztiak, baita hedabideen arloa ere. Hedabideen merkaturak aldatzen ari da, diru-sarrerak murrizten, baita laguntza publikoak ere... Panorama, hortaz, nahikoa zaila da.

Euskarazko komunikabideen beharra, ordea, beti bezain handia eta garrantzitsua da, euskaraz bizi nahi badugu behintzat. Eta badira horretarako aukera eta bidea ematen ari zaizkigun hedabideak, Leitzako Euskara Batzordearen ustez denon laguntza merezi dutenak. Euskararen etorkizunerako ezinbestekoak direnez, gizarteak berak lagundu behar du horien geroa bermatzen, bere garaian hedabide horiek sortzen eta altxatzen lagundu zuen bezalaxe.

Zitada kanpainak he-

rritarren sostengua eta bultzada bilatzen du orain arteko eskaintzari eusteko eta proiektu berriak garatzen joateko. BERRIALAGUN izateko aukera zabaldu da, eta ahalegin kolektibo horretan 5.000 lagun ziztada lortzeko apustua egin dute. Leitzako Euskara Batzordeak dei egiten dizue denei apustu horretan parte har dezazuen, eta *Berialagun* izateko urratsa eman dezazuen. www.berria.info/berria-laguna helbidean aurkituko duzue horren inguruko informazio zehatza. Animo, beraz, eta parte hartu euskararen aldeko ekimen honetan.

San Migeletako
bestondo goxuaItziar Mitxelena (Igantzioko
Eskolako guraso elkarte
juntaren izenean)

Joan dire aurtengoa ere Sanmigelak eta joan da Sanmigelekin batera bat baino gehiagoren bestondoa. Gure bestondoa aurten, guztiz eramangarri eta goxua izandu da, inolako buruko minik gabekoa.

2012. urtea, murrizketak direla eta, hagit aipatua izandu da eta guri, eskolako murrizketak, hagit hurbiltik ikustea tokatu zaigu; Joan diren urteetan Igantzioko eskolan gure haurrek lantzen zuten

"emozioen hezkuntza" eta bertze zenbait proiektu arriskuan daude (edo zeuden?) eta hori ikusita, guraso elkarte-kook herriko bestetan ostatua jartzea erabaki genuen proiektu horiekin aitzinera segitu ahal izateko.

Ostatuak izan duen arrakasta ikusita, guri, guraso elkarteko juntakoei, **ESKERRAK EMATEA** bertzerik ez zaigu tokatzen. **ESKERRAK AUNITZ** beraz, lehenik eta behin Martin Legarrari lokala uzteagatik; Txopenekoie gure buila eta zinkinkeria zuen atean ikusita ere, pazientzia izateagatik eta garbitzeagatik; eskolako guraso izan gabe, bertan bolondres gisa lanean aritu zareten guztioi (Joxan, Joxe, Xeli, Amparo, Inazio, Felix); eskolako irakasleei zuen lanordutik kanpo ostatuan ere lanean aritzeagatik; hainbertze ilusioz zerbitzatzen, muntai lanetan, pintura lanetan... aritu zareten guraso guztiei; Marijori besta aitzinetik eta bitartean, guri eskeinitako denbora guztiarengatik, eta, nola ez, besta hauetan bertara hurbildu zareten eta guregan konfiantza jarri duzuen guztiei.

Heldu den urtean berriz ere bestondoa izateko prest gaudela erran beharrik ez dago; bestondo goxoa; ordu aunitz lanean eman ondok jasotzen ahal den ordain goxua. **BEJON-DEIZUELA** denei!!!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta: Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA

Tel.: 948 63 54 58

Faxa: 948 63 54 57

Prentsatik bildutakoak



«Udan, batez ere abuztuan eta irailean ongi jokatu dut. Emaizak ere alde izan ditut eta partida onak atera zaizkit. Kantxan oso gustora sentitu naiz eta uste baino partida gehiago jokatu ditut».
«Hainbeste denbora jokatzen aritzearen giltza lesioekin suertea izatea da. Baita zaintzea eta egunero egunero lan egitea entrenamenduetan».

Asier OLAIZOLA
Goizuetako pilotaria
D.VASCO, 2012.10.02

«Txirringularitzan bergizarteratzea ez da esistitzen, arauak ez direlako argiak. Nik ezin izan dut Espainiako taldetan aritu, taldeek badakitelako positiboa eman duten txirringulariak izatea ez zaiola UClri gustatzen, eta horrek arazoak ekartzen ahal dizkie (...) Nere positibotik aunitz ikasi nuen bizitzarako; gauza txarretatik gehiago ikasten da onetatik baino».

Patxi VILA
Berako txirringulari ohia
D. NAVARRA, 2012.10.10

11 galdera labur

Goizuetan jaiotako igantziarra edo Igantzin bizi den goizueta-rra?

Erantzun errexa da, dudik gabe Igantzin bizi den goizueta-rra.

Zer dauki Igantzik Goizuetak ez duena?

Bortzirietako herriak ondoan. Goizueta aparteago dago, inkomunikatuagoak gaude.

Eta alderantziz, zer dauki Goizuetak Igantzik ez duena?

Giroa. Igantzin ere bada, baina Goizuetan beste modukoa da.

Igantzik Sanmigelak edo Goizuetako Amarjinak?

Hemen ere dudik ez, amabirjinak.

Nola gogoratu zitzaizun XXI mendean ikatz-txondorra egitea?

Goizuetako gazteei esker, beraiek proposatu zuten, elkarrekin proiektua egin, gazteak laguntzeko prest zeuden eta azkenean egin genuen.

Facebooken kontua duen lehenbiziko ikazgilea izanzen zara?

Seguru aski bai, baina atzetik heldu dira gazteak eta horiek ere sartuko dira sare sozialetan. Whatsappen ere badugu talde bat: Txondareros.

Neguan berotzeko, ikatza edo gas naturala?

Nik nahiago duk egurra berotzeko eta txuleta ona jateko ikatza.

Zer behar du txondorrek ikatz ona egiteko?

Denbora, lasaitasuna eta kontrolatu pixko bat.

Gaur egungo krisiarekin, petroleoa utzi eta ikatzera bueltatu beharko ote dugu?

Ni badaezpada prest nago. Zaila izanen da, lan asko duelako, baina zeinek daki!

Futbitoa edo pilota?

Bietan aritua naiz, futboleant eta herri kirolean ere bai, baina kirol politikoa pilota da.

Beste sorpresaren bat izanzen ote dugu aurten Goizuetako Baserritarren Egunean?

Ez nintzen harririk!

Hemen beti lanerako prest daude gazteak eta beti bada gauza polit edo interesantetaren bat...



Andoni ETXENIKE → Goizuetako ikazgilea Igantzin

elika
Dietetika - elikadura

- Ahokulartzia dietetiko nutricional personalizatua
- Gorputz konposizioaren analisia: ura, muskula, gantza ...
- Dietoterapia: hipertentsioa, hiperkolesterolemia, diabetesa, arazo digestiboak ...
- Kolesterola eta glukosa azterketak

Istar Andueza Lantz
Itzea, 6 beheko - BERA - T. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

Karsuk®

Muebles de cocina
Meubles de cuisine
Sukaldeko altzariak

K

Karlos Pombar Sainz

C/Sara 1 bajo local C
31780 Bera (Na)
T/F +34 948 625 430
M +34 699 884 084
info@karsuk.eu
www.karsuk.eu

948 631 218
Kanttonberri 1, BERA
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA

KATEA-BIKE

José I. Gonzalez Enguit
pinturaz
barukoak eta fotoak
tel. 666 235 466

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak

948 630 763 - Aitzate, 17 - BERA

okaNe

HARATEGIA / URDAITEGIA
jasa huts & karga

Tfn/Fax: 948 630 018
Kanttonberri 12 - BERA

GIZARTEA

MURRIZKETAK → NAFARROAKO GOBERNUAREN TOKIKO MAPA BERRIAREN AURREPROIEKTUAN

Mankomunitateak 67tik 6ra murriztea planteatzen dute

Ttipi-Ttapak Nafarroan hartzen duen eremu osoa Sakanarekin bilduko litzateke

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak urriaren 3ko bilkuran ezagutzera eman zuen Nafarroako Tokiko Administrazioaren berrantolaketako Foru Legearen aurreproiektua. Aurreproiektu horrek jasotzen du, alde batetik, ur, zabor eta abarren zerbitzua eskaintzen dituzten mankomunitateak eta elkarrekin tradizionalki murriztea, egun dauden 67 horietatik 6ra pasatuz.

Ttipi-Ttapak Nafarroan hartzen duen eremu osoa (Malerreka, Bertizarana, Bortzirriak, Leitzaldea, Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubi) mankomunitate bakarrean bilduko litzateke, Sakanarekin batera (Bidasoa-Sakanako Mankomunitatea).



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Horrela geldituko litzateke Mankomunitateen mapa.

Bertzetik, udalerrietako idazkaritza eta kontu-hartzailetzako funtzioak zentralizatzea; hala, egun dauden kudeaketako 166 unitateetatik 103 pasako dira fase ertain batean (59k zerbitzua banaka emango die 2.000 biztanletik goitiko toki-erakundeei eta 44k administrazio-funtzio horiek taldeka eskainiko dituzte 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan) eta 40an geldituko dira fa-

se fase aurreratuago batean.

Aurreproiektuak tokiko mapa berrantolatu nahi omen du udalerrien eta kontzejuen kudeaketa-egiturak murriztuz, kostuen aurrezteak sustatzeko xedearekin.

Nafarroako udalerrietako kopuruak kasik egun dagoen bezala segituko du (272 udalerrietatik 348 kontzejuratu gaur egun), nahiz eta berrantolatzeko proposamenak mekanismo-

ak ezartzen dituen murrizketan aitzinera egiteko. Bertzeak bertze, udalerriak eta kontzejuek desagertzea planteatzen da hauteskundeetarako hautagaiak aurkezten ez badira.

HURRENGO PAUSOAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketako Foru Legearen aurreproiektuaren berri jaso ondoren, testua inplikaturik dauden departamentuei bidaliko zaie dagozkien txostenak egin ditzaten. Gainera, kontseilariak Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioari proposamena igorri dio. Toki Erregimeneko Foru Batzordearen txostena eta Gobernuak onartutako Lege Proiektua Nafarroako Parlamentura bidali aurreko pausoak izanen dira, bertan izapidetu dezaten. Aldi berean, lan-taldea abian jarriko da toki-erakundeen finantzaketan aldaketarako proposamena zehazteko.

KULTURA

Herri hizkeren Atlas argitara eman du Euskaltzaindiak

TTIPI-TTAPA

Euskararen herri hizkeren Atlasaren IV. liburukia aurkeztu dute Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernuak. Abeltzantzaritza eta etxeari lotutako hitzak biltzen dira. Herri batean eta bertean gauza bakoitzari nola erraten zaion jakin nahi duenak Atlasean begiratzeko aukera izanen du. Nafarroako 27 herritan egin dute bilaketa, horien artean Aniz, Donamaria, Erratzu, Etxalar, Ezkurra, Goizueta, Leitza, Lekaroz, Sunbilla eta Zugarramurdi.

Liburukia bi zatitan dago banatuta, lehenengo eta bigarrena eskainia dago. Zerriaren inguruko gaiak hartzen du tarterik handiena, bertzeak bertze zerriaren izenak, etxean hartzen zuen tokia, zerri-hiltze prozesua... herri bakoitzeko berezitasunak jasotzen dira. Bigarren zatian, etxearen esparruari buruzkoak ageri dira: eraikuntza motak, jabetza mailak...

zalain
JATETxea - RESTAURANTE

Zalain auzoa z/g
31780 Bera
T. 948 631 106
w. www.zalain.com

zalain

F. LANCHAS

Akudiladorea eta berrizatzaila
Parket eta parket flotatzaila
jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 736 M: 607 406 781

LABE ZAR

Tel: 948 631 076 - BERA

BIDASOA

TURKIOAK - PESTIBANAK
ESTURUEK - AUTUMATIBANAK
MOXETIBAK - KOMPENKITA

T./F. 659 971 442
BERA

ZUBIONDO
Jatetxea

sagardotegia jatetxea

Alasta karrika
BERA NAFARROA

Tel: 948 645 374

BRANDONEA, S.L.
PROFITAS BERA NAFARROA

BILTEGIA 948 630 102 • FAUSTINO 647 810 152
Bidasoa, 76 - alea 21-22 • 31780 BERA



Azaroak 1
Omiasaindu eguna
Santu Guztien eguna

Tipi-Tapa | 576 zk. | 2012.10.18.



Bañalok eta etxeko produktua
Aitzate, 19 - BERA - Tel: 948 630 786



sarobe
gozotegia okindegia
17 de etzegara 25 bajo 31700 berainavami | L948 630899
www.sarobe.net



ekhi
Kafetegia Okindegia Pasteleria
Tel: 948 637 791 | www.ekhi.eu
Bittina kalea LESAKA



ANTZUZELAI S.L.
Aitzinaldeak, angeluak, pareta aitzinekoak, leihoak, atek, arkuak, pilareak, tximiniak, erlaizak, moldurak, zokaloak, hilarriak, marrazkiak
Tel. 948 631 317 • Faxe. 948 631 587
Irungo errep. BERA
www.antzuzelai.com • info@antzuzelai.com



SOULE
HILETA ARTEA
T. 948 453 444 | M. 629 659 583
ARIZKUN

OMIASAINDU EGUNeko GOZOKIAK

Haize kruxpetak, santu hezurrak...

Azaroaren 1ean Santu Guztien eguna ospatzen da, katolikoek artean hildakoak omentzeko dagoen ospakizun eguna. Baina egun honetan dena ez da negar malkoa, familiak mahai inguruan bildu eta jaki gozoak dastatzeko ohitura ere izaten da. Data honekin lotuta, hauek dira ia gozotegi guztietan aurki ditzakegun postre tipikoak:

HAIZE KRUXPETAK: Aste Santuetan gehiago kontsumitzen badira ere, Omiasaindu egunean ere aunitz saltzen dira. Ura, irina, arrautzak, gurina, azukrea eta gatz ximiko batekin egiten da oreka eta olio ugaritan frijitu. Gero, ongi xukatu ondotik, alde batetik ebaki eta krema, esne-gaina edota txokolatearekin betetzen dira. Ez badira betetzen, gainetik azukre hautsa eta kanela botatzen zaie eta... jateko prest.



SANTU HEZURRAK: Mazapan orearekin egindako tututxo hauek, gainetik almibarrez estaltzen dira eta, duten hezur itxuragatik hartzen dute izen berezi hori. Santu hezurrak hainbat gairekin betetzen dituzte gozotegietan: tradizionalenak arrautza gorringoarekin beteak izaten dira, baina... aukeran, badira txokolatez, marmeladaz, aingeru-adatsez... beteak. Norberaren esku gelditzen da gustokoena hautatzea.



HILOBIAK ETA HILARRIAK

Hilerri-baratzeak

Euskal Herrian gairi, eta batez ere Ipar Euskal Herrian, hilerri-baratzeak nahiago dituzte arrazoi estetiko eta simbolikoengatik. Jokabide berri honek gaurko hilerrien itsuskeriari buruzko gogoeta egitera gonbidatzen du. Horretan ari den elkarte bat ere bada antolatua, Lauburu Elkarte, eta hainbat Herriko Etxek elkarte honekin bat egin dute hilerri-baratzeen proposamenak aitzinera eramateko.

Nagusiki, lehengo ondarea inspirazio iturri bezala hartzen dute, baina formak eta teknikak erabat kopiatu gabe.



Oroitarrak modernoek lehengo ikurrak erabiltzen dituzte, baina erreproduzitu gabe



Aukera handia kalitatezko produktuetan

Domisaindu egunerako loreetan
eskaintza gabala



Etxe barrurako zein
kanporo landare eta
arbolak

Dekorazio osagarriak,
loreontziak eta
jardinerak

Lorategirako
erremintak



Ongarriak eta
ongarritzeko gaiak

Landareak, loreak, fruta-
arbolak, lore-konposizioak

Landiflor



Landiflor zure loredenda egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 18.30
Dantzarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@venta-peio.com

Dantzarinea Ibañeta Valcarlos Behobia

www.venta-peio.com ☎ 0820 562 267 (fr) ☎ (+34) 902 210 800 (es)

iris
loredendafloristeria

Domisaindu Egunerako eskaintza bereziak

Jaime Urrutia 21 | Tel. 948 58 10 53 | ELIZONDO

Lore-denda  **Larunbat arratsaldeak eta igandeak irekia**

Krisantemoak, azuleak, ziklorenak zentru artifizialak eta naturalak

Bisitatu gure postua Elizondoko ortzeguneko merkatuari eta Elizondoko ferietan glazoiari

NARBARTE • T. 948 59 22 00

Donostian - Beran - Elizondon
ORDUTEGIA 9:00 - 13:30 GOIZEZ
16:30 - 20:00 ARRATIALDEZ

Merkaopari
www.merkaopari.es



BISITA TXARTELAK 2013ko EGUTEGIAK



500 ale **95€** * Kartulina berezia 400gr. koloretan BEZ barmen

1000...115. 250...90. 100...75.

ttipi-ttapa Koskontako bidea, 7 LESAKA
948 635 458 kulturkari@ttipi.net

KRISANTEMOAK, KRABELINAK, GLADIOLOAK...

Hilerriak apaintzeko loreak



Krisiak lore salmentari ere afektatu diola bistakoa bada ere, Santu Guztien egunean lore freskoak (moztuak eta landareak) hilerrietara eramateko ohiturari eusten dio jendeak.

Lore-denda eta mintegiek prest dituzte dagoeneko urteroko eskaintzak: krabelinak, gladioloak, krisantemoak, arrosak... Izan ere, lore produktora emanak diren mintegi handiek urri hondarrerako programatzen dute euren ekoizpena, izaten den eskakizun handiagoari aurre egiteko.

Krisantemoak eta krabelinak dira gehien saltzen direnak eta azkeneko urteotan ez dira hainbertze 'zentro' egiten. Alabaina, larrosak eta margaritak ere aukeratueneren artean egoten dira. Koloreari dagokionez, berriz, zuria da gehien eskatzen dena baina bada kolore biziak eskatzeko joera ere: morea, fuk-sia, arrosa, horia... Jakina, honetan ere modak izaten dira eta



DOMISAINDURAKO
LORE ETA
LANDARE
ESKANTZA
ZABALA

BEKO

LOREAK ETA LANDAREAK

Erreserbatu domisaindu egunerako loreak eta mintegian gordeko dizkizugu

Astelehenetik larunbatera: 9:30-13:00/16:30-19:30
Igandeak: 10:00-13:00

Otsango auzoa - LESAKA | T. 948 637 826

KULTURA → GURE TXOKOA ELKARTEAK ANTOLATUTA

XXVI. Lurraren Eguna urriaren 28an ospatuko da

Bezperan Lizuniagako lgoera eta barazkiopil lehiaketa eginen dira

barazki erakusketa zabalduko dira. 90 esku-langile espero ditu Gure Txokoa elkarteak. 10:30ean Altzateko plazan txalaparta, zeltiar musika eta Irats trikitalariak adituko dira.

GASNA ETA SAGARDO LEHIAKETAK

11:00etan Bortzirietako XXVI. Gasna lehiaketa abiatuko da eta Berako eskolako trikitaliak ibiliko dira karrikaz karrika. Gazta lehiaketako irabazleak 220 euroko saria eta oroigarria eramanen ditu, eta bigarrenak 100 euro. Gazta bakoitzaren truke 12 euro ordainduko dira. Eguerdian sagardo lehiaketaren hamabosgarren edizioa egingo da. Musika eskolako musikarien eta Bاندaren karrikabuelta ere orduan hasiko. Sagardo lehiaketako irabazleak 200 euroko saria jasoko du eta bigarrenak 100 eurokoa. Bi sagardo botilaren truke 6 euro ordainduko dira.

16:00etan Altzateko plazan Dantz Jolas Jaia eskainiko du Zirika Zirikus taldeak. 17:00etan Gure Txokoako dantzarien saioa, sari banaketa, enkantea, bertsolariak eta Trikidantz taldearekin dantzaldia izanen dira.

Egun guzian musika, taloak, jaki eta edari dastatzeak izanen dira. Euria eginen balu, ekitaldiak Altzateko frontoian eta Toki Ona kiroldegian eginen dira.

TTIPI-TTAPA

Aurten 26. edizioa beteko du Lurraren Eguna Berak. Gure Txokoa Elkarteak antolatuta, urriaren 28an ospatuko da, baina bezperan ere izanen dira ekitaldiak.

Urriaren 27an, larunbat arratsaldeko 17:00etan Lizuniagako lgoeraren 32. edizioa jokatuko da. Beti bezala, 4,9 kilometroko ibilbidea izanen dute korrikariak, baina informazio zehatzagoa kirol orrialdeetan topatuko duzue. 15:30ean ttikiaren lasterketa eginen da.

18:30ean, Rosa Errandoneak prestatutako Baserriak argazki erakusketa zabalduko da Labiaga Ikastolan eta 19:00etan barazkiopil lehiaketaren seigarren edizioa jokatuko da. Irabazleak oroigarria, 100 euro eta ardo kaxa eramanen ditu saritzat eta bigarrenak ardo kaxa. Trikitalariak ere ariko dira Altzateko frontoian.

Urriaren 28an, igande goizeko 09:00etan lehiaketarako barazkiak, gaztak eta sagardo botilak bilduko dira Ricardo Baroja eskolan. 10:00etatik aitzinera eskulangileen azoka eta



UTZITAKO ARGAZKIA

2.000 lagun bildu ziren Bortzirietako Haur Bestan

Goiz euritsu baten ondotik, eguzkia atera zen eta horrekin batera familia aunitz hurbildu zen irailaren 29an kiroldegira. 2.000 pertsona inguruk ospatu zuten I. Bortzirietako Haur besta. Adin desberdinetako neska mutikoen eskalaten, margotzen, puzgarrietan ibiltzen... gozatu zuten. Malerreka, Baztan eta Iparraldeko bizilagunak biltzeko asmoz, Labiaga Ikastolako Guraso Taldeak antolatu du lehen aldiz besta, haurren eta gurasoen arteko harremanak bultzatzeko asmoz eta antolatzaileak gustora agertu dira bestak izan duen erantzunarekin.

LANAK → NAFARROAKO GOBERNUAK %80KO DIRULAGUNTZA EMAN DU

Herriko Etxe berrian izanen dira berriz ere udal bulegoak azaroan

TTIPI-TTAPA

Herriko Etxean hainbat lan egin dira eta azaroan udal bulegoak berriz bertan irekiko dira. Sotoan artxibo gela, langileentzako aldagelak eta dutxak, galdara... Beheko solairuan hiru bulego berri egin dira, batean epaitegia egingo da eta bertze biak erabilera desberdinetakoak izanen dira, aldika kanpotik etortzen diren bertze zerbitzuak emateko. Komunak eskalburuaren azpian antolatu dira. Lehenengo solairuan, berriz, orain arte bigarren solairuan zeuden bertze bulegoak (alkatetza, idazkaria, kontu hartzailea, administrazioa...), egunero ko artxiborako gela, bilera gela eta udal langileendako gelak egin dira. Izan ere, orain arte udal bilera eta komisio-



UTZITAKO ARGAZKIA

Udal bulegoak erakutsi zituzten urriaren 6an.

ak pleno aretoan egin behar izaten zituzten.

Beraz, bigarren solairuan zeuden zerbitzu gela hienak beheiti joan dira, baina alkateak gogorazi duenez, «pleno aretoa hor gelditzen da, lehengoko egoera kaxarrean. Ez dakigu noiz izanen dugun hori moldatzeko aukera, egungo egoera ekonomiko kax-

karrarekin jai dugu». Nafarroako Gobernuak inbertsioen planaren barrenean %80ko dirulaguntza jaso du Herriko Etxeak esleitutako prezioetik, baina gastu erreal nabarmen goiti egin duela aipatu digu Marisol Tabernak eta «udalaren gain joan dira proiektua, obren zuzendaritza, altzariak...».

LESAKA

GIZARTE → URRIAREN 5EAN EGIN ZEN INAUGURAZIOA

Liburutegi berezia estreinatu dute Irain eskolan

Eskola orduetatik kanpo ere irekia dago ikasle eta gurasoentzat

Aitor AROTZENA

Irain ikastetxe publikoan liburutegi berria inauguratu zuten urriaren 5ean. Eskola orduetan ekintza bereziak egin zituzten ikasleek (irakurketak, tailerrak, jokak...) eta gero helduentzako inaugurazioa egin zen. Liburutegiaren inguruan, guraso eta irakasleen artean egindako proiektu bat da. Lourdes Mazizior zuzendariak aipatu digunez, «denok lan asko egin dugu, baina azpimarratzekoa da Maite Gaztelumendi ilustratzaileak egindako lana, berak marrazkiak egin ditu eta proiektua koordinatu du».

Liburutegia hiru eremutan banatu dute. Haurtikien txokoan, irakurri, margotu eta marraztu dezakete; lanerako txokoan kontsultarako liburuak eta ordenagailuak dituzte, Internet konexioarekin; eta irakurketa txokoan, berriz, plazerrezko irakurketa egiteko liburuak, aldizkariak, komiki-



UTZITAKO ARGAZKIA

Liburutegia hiru eremutan banatu dago: haur txikien txokoa, lanerako txokoa eta irakurketa txokoa.

ak, CDak, DVDak eta bertze irakurgaiak dituzte, bertan irakurri edo maileguan hartzeko. Horretarako ikasle bakoitzak liburutegiko karneta du.

Urriaren 8tik aitzine-
ra berriz, liburutegia eskola orduetatik kanpo ere irekia dago eta irakurketaekin lotuak dauden ekintzak burutuko dira, bai ikasleentzat bai gurasoentzat (irakurketa txokoak, ipuin kontalariak, kamishibai, liburuaren astea, berrikuntzak, idazleak...) eta lanak egiteko aukera ere ematen du. Lourdes Mazizior zuzendariaren erranetan, «Irain eskola komunitatea ilusioz beterik hasi da erronka

honetan eta proiektu honetan ikasleek zuten behar bati erantzuna eman nahi izan zaio».

Bertso desafioa

Lesaka eta Sakana-
ren arteko bertso desafioa egingen da urriaren 20an, larunbat arratsaldeko 17:00etan Arrano elkartearen. Sakanarekin Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Joxema Leitzia ariko dira eta herriko ordezkariak Xabier Silveira, Ioar Tainta eta Josu Sanjurjo. Aitzinetik bazkaria izanen da, Arrano elkartearen urteurrena dela eta ospatzen ari den sukaldaritza lehiaketaren barnean. Sukaldiariak bertso eskolako kideak izanen

dira. Bazkaria 10 euro kostako da eta bertso saioa opari.

UEMARI buruzko bilera urriaren 19an

Aitzineko alean aipatu bezala, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzekotan da Udala eta herritarrek izan ditzaketen zalan-tzak argitzeko eta kezak eta ekarpenak jasotzeko bilera egingen da urriaren 19an, ortziral arratseko 20:00etan Herriko Etxean. Udal ordezkariak, Bortzirietako bertze udaletako ordezkariak, eta UEMA-ko koordinatzaileak parte hartuko dute. Herritarrek eta eragileak ere gonbidatuta daude.

FLASH

Txondorra egiteko asmoa

Kabi bat, hamaika hegada izenburupean 25. urteurreneko ospakizunak egiten ari da Arrano elkarte. Horren barnean, txondorra eta kultur harroaldia antolatzeko asmoa dute. Urriaren 5ean *Goizuetako txondorra* bideoa ikusi eta hori bultzatu zuten Goizuetako gazteen azalpenak aditu zituzten. Orduan ez zuten erabaki herrian txondorra egin edo ez, baina urriaren 12an berriz ere biltzekoak ziren solas-
teko.

Auzolan Eguna gazteen eskutik

Azken urteetako ohirurari eutsiz, Gazte Asanbladak lan eguna izan zuen urriaren 12a. Aurtan, *Auzolanaren kultura* solasaldia eskaini zuen izen bereko liburuaren egile den Jaxone Mitxeloren etxalartarrak. Ondotik hamaketakoa izan zuten gazteek.

Beti Gazteren argazki lehiaketa

Beti Gazte elkarteak antolatzen duen argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. Lau sari emanen ditu. Lehenbiziko saria, 300 euro eta trofeoak izanen da eta bigarrena 200 euro eta trofeoa. Gainera, herriko egileen artean argazkirik onenari 150 euro eta trofeoa emanen zaio eta sari berezia izanen da kirol argazkirik onenarentzat. Epaimahaiak azaroaren 12an emanen du erabakia eta egun horretatik abenduaren 2ra arte erakusketak izanen da Beti Gazteren egoitzan.



ETXALAR

GIZARTEA → OSPAKIZUNA LIZAIETAN ETA PLAZAN

Urriaren 21ean ospatuko da Usategietako Igandea

Altxatak ostatua jarriko du goizean Lizarietan eguraldi ederra izanez gero

Irune eta Itsaso

Arratsaldean berriz, urtero bezala frontoian izanen da ostatua baita bokatak eta opilak ere. Lehengo urtetan bezala, boletoak salgai izanen dira Andre Mari dantza taldeari laguntzeko. Sariak 12 uso bizirik, 2 lagunentzako otordua eta kanpin dena bat izanen dira. Arratsaldean 18:00etatik 21:30era dantzaldia izanen da plazan Gaubela taldearen eskutik. Bezperan, emakumeen afaría ere antolatu duete Herriko Ostatuan.

Bisita gidatuak

Hamargarren urtez, urriaren 1a eta azaroa-

ren 20a bitarteko ortziral, larunbat eta igandetan, Usategietan bisita gidatuak izanen dira, sareko ehizaren tradizioa bertatik bertara ezagutu ahal izateko. Bisitak goizez izanen dira eta 09:00etan, 11:00etan edo 13:00etan egiteko aukera dago. Ordu bat inguruko bisitak izanen dira eta prezioa, 4 euro pertsonako eta 10 pertsona baino gehiagoko taldeetan, 3 euro pertsonako.

Santxin bikain

Irailaren 29an jokatu zen Igantzin Nafarroako Harrijasotze txapelketa. Bortz harrijasotzailer aritu ziren lehian eta Xabier Ariztegi *Santxin* herritarra hirugarren izan zen, Unai Bertiz eta Josetxo Urrutiaren ondotik (informazio gehiago kirol orrietan).

Urriaren 6a, berriz, Labaienen jokatu zen Euskal Herriko Harri tikien txapelketa. Seiga-



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Xabier Ariztegi *Santxin* lanean Igantzin.

garrar urtez segidan, Aimar Irigoien izan zen txapeldun; bigarren Ize-ta III, eta hirugarren Ize-ta IVa. Xabier Ariztegi *Santxin* izan zen laugarren gelditu zena. Lehengo urteko mar-

ka, 1.000 kilo baino gehiagotan hobetu zuen gainera. 20 altxaldi egin zituen errektangularrarekin, 22 zilindroarekin, 16 kubikoarekin eta 16 bolarekin. Bosgarren Josetxo Urrutia izan zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xalba Zubietak onddo ederra

«Ibiliz gero harrapatzen dire!». Halaxe aipatu zigun Xalba Zubietak, urri hasieran harrapatutako onddo eder hori erakutsiz. Pisatu gabe jan omen zuen.

FLASH

Kultur Egunak

Aurten ere, Altxatak antolatuta, kultur egunak izanen dira urriaren eta berriz ere egitarau polita antolatu dute.

Urriak 19, ortzirala: 14:30ean txistu emanaldi pedagogikoa Kultur etxean.

Urriak 25, ortzeguna: 19:30ean hitzaldia kultur etxean, Andres Iñigo euskaltzainarekin. *Euskara: landu eta indartu beharreko hizkuntza* izanen da so-lasaldiaren izenburua.

Azaroak 4, igandea: 12:15ean Lesakako abesbatzaren emanaldia Eliazan.

Organoa zaharbertitza

Elizako organoa errestauratzeko jendeak eman duen dirua aski ez delako, herritar batzuk falta dena nolabait atera nahian hasiak dira. Urriaren 7an bilera egin zen eta bertaratu ziren 60 lagunek eguberrietako saskiaren erriak salduz edo jendeak emandako gauzeekin merkatua edo subasta eginez dirua ateratzeko modua ikusten dute. Hurrengo TTIPI-TTAPAN honen berri zehatzago izanen duzue.

PPSOE, Euskal Telebista digitala Nafarroan orain!
Berria erosi taldea

Martiko
Pol Zalaia, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Harribitsen editores eta erretail

DENDA ORDUTEGIA:
asteleheneretik ortziralera
08:00etatik 17:00etara

BORTZIRI UNSION ANAIK
Sukalderako altzariak

Berriko etxea • LESAKA
Tel: 948 637 206 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

BAR BOTO OSTATUA
Zalaia • BERA • 948 630 052

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → KULTUR EGUNEN BARRENEAN

Azaroaren 1ean XVII. Baserritarren Eguna egingen da

Ekaitzak herritar guztiak gonbidatu ditu egunean parte har dezaten

Nerea ALTZURI

Aurten ere, baserritarren eguna azaroaren 1ean izanen da. Ekaitza Elkarteak, ohi bezala, eguna prestatzeko gutuna bidali du etxez etxe, goizeko merkaturan herritarrek parte hartzea gonbidatuz. Azkenean, herritarren partehartzerik gabe zaila izanen baita azoka antolatzea.

17. edizio honetan ere, etxe nahiz baserrietan egin eta hazitako hainbat produktu, eskulan etaazienda erakustea nahida elkartetik, funtsean hori baita egunaren helburua: bertan egiten dena plazan erakustea.

Goizean herriko plaza eta frontoian auzendak, barazkiak, fruituak, gozoakiak, opilak, zerrikiak, gaztak, artisau la-

nak... denetarik ikusgai eta salgai izaten dira. Zortzigarren ardi gazta lehiaketa ere egingen da aurtengoan.

Azokan nola lehiaketan parte hartu nahi duenak, aste hondarra baino lehen (urriak 25) horren berri elkarteko kideren bati eman behar dio: Maixe Fagoaga (617 296458) edo Aitor Teletxea (647 289778).

Baserritarren egunekoa Euskara Batzordeak antolatzen duen udazkeneko kulturaldian kokatzen da. Aurten azaroaren hasierako asteburuan izanen dira kultur egunak.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Eskolako Guratso Elkarteak antolaturiko zenbait jarduera hasiak dira. Aurten, lau ekintza antolatuta dituzte:

Gaztetxo talde bat karrateak ikasten hasiak dira. Astelehen eta ortzegun arratsaldetan ematen da eta Iker Ordoki le-



UTZITAKO ARGAZKIA

Onddo zareak ederki beteta datoz udazken honetan

Onddo bila dabilzanak, zareak ederki beteta etortzen dira gehienak. Onddo atera da eta zaletuek, mendian itzulixka egin bidenabar, produktu preziatu hau ekartzen dute etxera. Aski frexkoak ditugu hauek...xehetu eta jan aintzinetik ateritako argazkia da, tartean, ia kiloko piezaren bat ere bai. Baserritarren egunean, tenoreko jaki honek ere seguru hainbat postu edertuko dituztela!

sakarra irakaslea da.

Trikitrixa eta pande-reta ikastaroa, ortzegunetan Lesakako Jone Elgorriagak ematen du eta hemen ere, ikasle talde bat bildu da.

Pilotan aritzen erakusteko, bertako pilotaria den Beñat Mitxelenak arduratu hartu du aurten ere eta ortziraleroko, arratsaldetako 18:00etan biltzen dira. Pilota eskolaren kasuan, Guraso elkartearen eta Ekaitzaren artean antolatzen dute.

Azkenik, dantza ikastaldiaren hasiera noiz izanen den oraindik ez da zehaztua; nolahi ere,

hiru urtetik gorako haurrek izena eman dezakete.

Eskulanak eta aerobika

Joan den alean aipaturiko eskulan ikastaroa iadanik abiatu da. Rosa Mari, Rakel, Maixe, Loli, Pili eta bi Kontxitak, betiko partaideek segitzen dute. Pui Urtasun iruritarra, hau ere, hasieratik izan duten irakasleak hortxe segitzen du. Astearte arratsaldetan, borts eta erdietatik zazpi eta erdietara eta Zahar Txokon aritzen dira. Bertalalde, aurten ere,

herritar talde bat asteen bi egunez aerobika egiten hasia da. Ana Larretxeak ikastaroa ematen segitzen du astearte eta ortzegunetan, 18:00etatik 19:00etara.

1961eko kintoak

1961ean jaiotako Bortzirietako herritarren kinto besta egingen da Arantzan azaroaren 17an.

Kinto besta egiten duten bigarren aldia da, joan den urtean Igantzin egin zen. Afaltzera joan nahi duenak Aterpera deitu behar du (948 634179).

Luis Ibarra
Zurgin lanak orokorrean
636 701 204
Salbatore karrua, 28 - ARANTZA
690 388 263

Armaruak
Lehoak
Ateak
Telatuak bertak
Pake flotanteak
Tarnak
Telatu zaharberriak

IMANOL ITURRIA ZURGINA
Enpresa eta partikular
T. 661 577 137
E-posta: imaiturria@hotmail.com
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

aterpe
alberge jaitzeak ostatuak

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Bortz ostatu izan dira aurten herriko San Migel bestetan

Urriaren 23an egingen da Herriko Etxean bestak baloratzeko bilera

Joxean ORTEGA

Aurtengo bestak da-goeneko joan dira, baina denok gogoratzen ditugu oraindik: gazte-ek antolatutako Gran-Prix-ak arrakasta itzela izan zuen eta herritarren artean sortutako ikusmina nabaritu zen: jende saldoa joaten zen parte hartu zuten 20 gazte, antolatzaile eta epaileen gibeletik, ea

hurrengo proba zein izanen zen ikusteko eta gozatzeko irrikaz. Aurten bortz ostatu izan ditugu herrian, Guraso Elkarteak Zentroan Eskolako Ostatua paratu baitzuen: irakasleek eta gurasoek(gehienek) lagundu zuten eta bestetan ere lan pixka bat egin zuten. Aski ostatu polita egin zuten argazkian ikusten den bezala. Zirkoa, kontzertuak, Herri kirolak, pilota eta pala partidak, toka, gaiteroak, trikitrilariak, dantzak, dantza-jazz, mus, par-txis, kankailu eta buru-haundiak, zinea, muxikoak, puzgarriak, Herri Bazkaria (aurten ere haurrek berea izan du-



ARGAZKIA: JOXEAN ORTEGA

Guraso Elkarteak zentroan eskolako ostatu dotorea paratu zuen.

te!!), bertsoak, zezen-suzkoa,.. denetatik!!

Heldu den asteartean, urriroaren 23an, Udaletxean egingo den bilerara, nahi duen guztia Bestetako Balorazioa egitera etortzen ahal da: iradokizunak, kexak, proposamenak, e.a. ekartzen ahal dira heldu den urteko bestak aurtengoak baino hobek izateko!!

Eta orain, hurrengo urtekoak itxaron behar. Guttiago falta da!



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Aurten ere herri kirol saio ikusgarria eskaini dute gazteek.



PERSIANAS EGOKI

30 URTE ETXERAKO KONPONBIDERIK HOBERENAK ESKAINIZ

- PERTSIANAK
- LEIHOAK
- GORTINAK
- TOLDOAK
- SEGURTASUN ATEAK eta DENDETAKO ATEAK
- KRISTALEZKO ITXITURAK
- AUTOMATISMOAK



ETORRI ERAKUSKETA BERRIA EZAGUTZERA:

Letxunborro etorbidea, 92 - 12. lokala • 20305 IRUN • T. 943 62 74 96 - 943 46 92 22 • www.persianasegoki.es

GAZTE OIHUA

GIZARTEA → EUSKAL HERRIA

Gazte prozesu eratzailera eskualdera iritsi da

Herriz herri aurkezpenak eta lehendabiziko asanbladak egin dituzte

GAZTE OIHUA

Irailaren 29an Zarautzen gazte eratzaileri hasiera eman zitzaionetik eskualdeko herri ezberdinetara hedatu da prozesua eta gero eta gazte gehiago ari da gazte antolakundea sortzeko bidean bere ekarpenak egiten.

Udan zehar Hego Euskal Herriko 200 herri inguruko 800 bat gazte independentista eta sozialista Lan Talde Motoretan bildu izan dira, gazte antolakunde baten beharraz eztabaidatu eta martxan den prozesu eratzaille hau prestatzeko. Lan talde motore horietako ehunka gaztek Zarautzen egin zuten topo, elkar ezagutu, esperientzia eta ideia ezberdinak el-

karbanatu eta prozesu eratzaileri hasiera emateko (irudian ikusten den bezala). Bertan joku eta ekimen ezberdinak egin zituzten, guztiak fruituekin zerikusia zutela, fruitak eta zukua hartuko baitira prozesu honen erreferentzia gisara. Izan ere, "norbanakotik kolektibora", gazte ororen freskotasunetik zuku goxo eta emankorra ateratzea espero da, gazte antolakundeak gazte guztion beharrak asetzeko tresna izan nahi baitu.

Baina Zarautzen prozesuari hasiera bertze-rik ez zitzaion eman eta orain herrien txanda iritsi da. Hain zuzen, udan zehar herrietako ekarpenei esker idatzitako ponentziak, herriz herri eztabaidatu eta aldatu beharko dituzte urritik martxora bitartean luzatuko den prozesuan. Eztabaida hau hiru bloketan banatuko da: lehendabizi egoeraren azterketa orokorra eginen dute gazteek, mun-



UTZITAKO ARGAZKIA

Irailaren 29an aurkeztu zen gazte prozesua eratzailera Zarautzen.

duan eta jendartearen arazoetan erreparatuz, gero Euskal Herriko ziklo politikoaz eztabaidatuko dute eta azkenik gazte estrategia definitzea egokituko zaie. Ez dute lan makala izanen beraz, baina eskualde honetako gazteek ere erakutsi dute lanerako eta borrokarako gogotsu daudela.

Herri batzuetan aurkezpenak egin dituzte jada. Horien artean, Mallerrekako aurkezpena Iturenen egin zuten urriaren 5ean, Lesaka eta Berakoak urriaren 6an, Igantzi, Arantza eta Etxalarren 12an, Leitzaan 13an... (argazkian Bortzirietako aurkezpenen kartela) Asanblada irekiak ere burutu dituzte herri batzuetan munduaren egoera orokorrari buruz eztabaida-

tzen hasteko. Prozesuan parte hartzen ari diren gazteek bertze gazteei ere animatzeko deia zabaldu diete, asanblada guztiak irekiak izanen direla azpimarraturik. Prozesu honetan ekarpen guztiak ongietorriak direla eta hausnarketarako, formakuntzarako eta ongi pasatzeko tartea izanen dela gaineratu dute. (Informazio gehiago www.gaztezukua.info webgunean).

Urriaren 12a Auzolan Eguna

Urriak 12a guretzat jai egun arrotza izanik, Auzolan Eguna izan dituzte hainbat herritan.

Berako Kaxerna gaztetxean talde ezberdinetan banatu eta lanak egin dituzte terrazan, sukaldetan, Mini-Fron-



toian, Eskalada, Tailerra...). Bazkariaren ondoren, bakoitza bere lanarekin segitu zuen Gaztetxean.

Lesakan ere auzolanaren aritu ziren gazteak eta Auzolanaren kultura solasaldia eskaini zuen Jasone Mitxeloren Auzolan ekimeneko kideak eta Auzolanaren kultura liburuaren egileak.

Elizondok herriak deituta erreka garbitzen aritu ziren.

Proiektu honek badu etorkizuna
Elkarlanean gai gara eusteko.
Ekarpen asko jasotzen ari gara, baina zurea ere behar dugu.
Oraindik badugu zeregina BERRIA komunitatea indartzen.
BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko

izan zaitez **berrialaguna**

www.berria.info/berrialaguna

SUNBILLA

KIROLA → IRAILAREN 29AN IGANTZIN

Nafarroako harrijasotzaileen txapela bosgarren urtez irabazi du Unai Bertizek

Euskal Herriko harri txikien txapelketan badaezpada ez zuen parte hartu Labaienen

Maidar PETREIRA

Irailak 29an Nafarroako Harrijasotzaile txapelketa egin zen Igantziko frontoian. Bertan 5 partehartzaile izan ziren eta bat, nola ez,

Sunbillako Unai Bertiz. Erran beharra da txapelketa hau Sanferminetan egitekoa zela baina partehartzaile gutti zeudela eta atzeratu zen, zehazki Unai oraindik ez zegoen bere momenturik onenean eta ez zuen parte hartzeko aukerarik.

Oraingoan bai parte hartu zuen eta gainera berriz ere txapela Sunbillara ekarri, bosgarren urtez segidan. Urriaren 6an Euskal Herriko txapelketa egin zen

baina Unai ez zuen parte hartu beldurra ematen ziolako denbora bakan egon eta bi txapelketak hain jarraian izanda parte hartzea. Zorionak Unai eta segi horrela. Animo.



ARGAZKIA: BIDAL IBARRA

Ulibeltzak Hiru Erregeen Mahaian

Ulibeltzak Mendi taldeak 2.444 metroko mendi irteera egin zuen urriaren 6an, hain zuzen ere Hiru Erregeen Mahaira joanez. Eguraldia lagun zutela oso giro onean egin zuten irteera. Aski nabaria da argazkian.



ARGAZKIA: GARI LARRABURU

Sunbildarrak Berako BTT martxan

Irailaren 30ean Beran BTT martxa egin zen eta jende andana bildu zen partehartzera. Erran beharra dago Sunbildar kuadrila joan zirela partehartzera eta gainera egunkarian atera. Azpimarratzekoa da argazkian ageri den gazteenak soilik 9 urte dituela, hain zuzen ere Koldo Herrerak eta bere anaia Enekok 15. Zorionak!



ARGAZKIA: ANA BELEN AGERREBERE

Eskolako haurrak goiz-arratsaldez hasiak dira

Bertze herrietan bezala, Sunbillan ere eskolako haurrak goiz-arratsaldez hasi dituzte klaseak urriaren 1etik aitzinera. Eskola hasi duten berriak egokitzen prozesua egin dute irailako hilabeteetan. Azken astean elkarrekin pasa zuten goiza osoa. Kuartso hasierako bilerak ere egiten ari dira.



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Unai Bertiz lanean Igantzin. Bosgarren urtez segidan Nafarroako txapela janztea lortu zuen.



ELGORRIAGA

OSPAKIZUNAK → ASTE HONDAR MUGITUA

Malerreka kantuz eta Kofradiaren Eguna izan ziren urriko lehen asteburuan

Nafarroako Zainzuriaren eta Bidasoko Izokinaren Kofradiek irabazi zuten kaxula lehiaketa

Mattin LARRALDE

Urriaren 6an, larunbat goizean kalejira egin zen herrian barna euskal kantu zaharrak abestuz. Malerrekako Euskara Batzordeak herriz herri antolatzen du, eta oraingoan Elgorriagari suertatu zitzaion. Soinu-joleaz lagunduta, haur, gazte eta adineko jendea kantuak abesten ibili zen. Jendearentzat arras esperientzi gus-tokoa izan da eta bertan izan ez zirenek pena zeukaten. Bertze batean beharko!

Larunbat arratsean onddo eta xixen kofradiko besta hasi zen. Bertan kofradeak eta gonbidatutako jendeak aforia izan zuten eta mus

txapelketa jokatu zen. Javier Tolosa aktorea eta Alvaro Begiristain bere laguna suertatu ziren txapel-dun.

Baina egun handia igandea izan zen. Goizean, hildako bazkide eta laguntzaileen ome-nez meza izan zuten, Arangurengo abesbatzak kantatua. Segidan, Jose Miguel Galarregi, Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiako presidenteak ohorezko hiru kide berrien merituak aipatu zituen. Aurten kofrade berriak hauek dira: Jose Javier Esparza, Nafarroako Gobernu-ko ingurumen kontseilaria, Alberto Rios, Embutidos Burgos enpresako jabea eta Jose Luis Cepeda, Cruzcampo enpresakoa. Juan Mari Arzak sukaldari-rik ez zuten bertaratze-rik izan, baina hura ere kofrade egin zuten.

Aurten, onddo beltzarik handiena saritu nahi izan dute eta Elgorriagan gelditu zen lehen saria eta bigarrena

Iturenera joan zen. Salvador Arozarenaren omenez antolatzen den kaxula lehiaketan, lehengo eta oraingo kofradeek parte hartu zuten, baita bertze kofradietako kideek ere. Hamar taldek hartu zuten parte eta Nafarroako Zainzuriaren kofradiakoak eta Bidasoko Izokinaren kofradiak izan ziren irabazleak. Lehiaketa eta gero, nahi zuenak



ARGAZKIA: MATTIN LARRALDE

Javier Tolosa aktorea eta Alvaro Begiristain bere laguna suertatu ziren garaile mus txapelketan.

kaxulak dastatzeko aukera izan zuen. Zubietako joaldunek ere, giroa berotzen lagundu zuten beraien joare soinuekin eta Migeltxo Saralegik harrijasotze erakustaldia eskaini zuen plazan eta lau urteko semea izan zuen lagun.

Segidan, txistorra, urdaiazpiko, odolki, gazta, sagardo eta ardo dastaketa egin ziren frontoian. Zubietako joaldunak eta Doneztebeko Bearzana txaranga ere aritu ziren lanean, bai-nuetzeko bazkariarekin besta akitu baino lehen.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Onddo eta Zizen kofradiako kide berriak izendatu zituzten igandean.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

<ul style="list-style-type: none"> ☞ Langile autonomoak ☞ Nekazariak eta mendi langileak ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak ☞ Lan-Kontratutarako laguntzak ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ☞ Diru-laguntza ezberdinak ☞ Kontabilitateak ☞ IVA eta IRPF ☞ Errenta aitortpenak ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak ☞ Bidegarritasun planak eta aurrekontuak
--	---

artekari@artekari.com

LESACA: Bittirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

LIZUN

GAZTANDEGIA

Sunbilla - Tel: 948 450 862

Gure Haragia

Nuestra Carne

GIZARTEA → «BUELTA EMAN NAHI DIOGU»

Doneztebarrak merkatari elkartearen kanpaina saritu dute

Uztailean egin zuten erakusleio aldaketak bosgarren saria lortu du

TTIPI-TTAPA

Doneztebarrak elkartearen erakusleio aldaketak, bortzgarren saria eskuratu du Nafarroako saltokiek egin dako *Buelta eman nahi diogu* kanpaina. Denera 55 proposamen aurkeztu ziren; bezeroa pareko ostatura gosaltzera gonbidatzen zutenak, irabazien ehuneko bosta karitasi ematen ziotenak... Herrikoek erakusleio aldaketa egin zutenean erakusleioan agertzen zena ez zuen zerikusirik bertan saltzen zenarekin. Elkarri publikitatea egiteko modu deigarria proposatu zuten.

Nafarroako Merkatarien Federazioak egungo egoerari buelta emateko martxan paratu zu-

en kanpaina parte hartzea erabaki zuen Doneztebako merkatari elkarteak. Horretarako, elkarteko bazkide batzuek erakusleio aldaketa bat egitea erabaki zuten. Ekimen honen bidez, baikortasuna zabaldu, aktibitate komertzialari bultzada bat eman eta saltokiak zein bezeroak mugitu daitezkeen lortu nahi zuten, krisi ekonomikoari buelta emateko. Ideia sortu zenean ez zekiten zer harriera izanen zuen kanpainak, baina jasotako erantzunarekin eta lortu berri duten sariarekin oso gustora daudela erran du Lorea Agirre elkarteko idazkariak: «Produktua zurea ez den erakusleio batean erakusteko aukera izan genuen eta horrela bertzela dendara etortzen ez den jendea erakarri dugu dendara».

Uztailaren 4tik 15era egin zuten kanpainaren lehenengo deialdia eta arrakasta ikusita, uztailean hondar arte luzatu zuten. Lortutako arrakas-



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebarrak elkarteko merkatariak, bertze saridunekin batera Iruñean.

ta eta saria ikusirik, kanpaina berriren bat abiarantzeko ideia ez dutenak ez dute baztertzen Doneztebarrak Elkarteko kideek.



ARGAZKIA: ERREKA K.E.

Herriko bi eskubaloiz jokalaririk aurrez aurre Asobal ligan

luz elkarrekin aritu ziren Niko Mindegia eta Ibai Meoki doneztebarrak eskubaloiz Asobal ligan, San Antonio taldean. Baina taldea desagertu eta biek talde berriak bilatu behar izan zituzten. Mindegia Logroñoeko Naturhouse taldean arituko da eta Meoki Iruñeko Anaitasunan. Biek herri eta koadrilla berekoak eta Errekako harrobikoak, arerio izan ziren irailaren 29an Anaitasunan. Aitzaki horrekin, Doneztebetik jende aunitz hurbildu zen partida eta batez ere, bi doneztebarrak, «Errekako harrobiko bitxi preziatuenak» ikustera.

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

autoeskola

%10eko
DESKONTUA
matrikulan

ttipi bartzela

ITUREN

GIZARTEA → SAN MARTIN BESTETAN, BERRIZ, GAZTEEK IREKIKO DUTE

Txukuntze lanen ondotik, berriz ere Aurtizko Ostatua hartzeko lehiaketa egingen da

Goitik beheiti garbitu eta paretak margotu dituzte udan

Arkaitz MINDEGIA

Ekainaz geroztik itxia dago Aurtizko Ostatua. Iturengo Udalak hainbat obra egin ditu udan eta Malerrekako Mankomunitateko langileak ostatu osoa goitik beheiti garbitu eta paretak pintatzen aritu dira, txukuntze lanak utziz. Orain azkeneko lantxo batzuk falta direla eta udalak laister lehiaketa publikora aterako du, norbaitek har dezan. Aitzinetik, San Martin bestetan irekia egonen da, udalak bertako gazteei uzten baitie bestak at-

ratzeko beraien etekinak ateratzeko.

Zaborrak bere lekuetan

Herri inguruko bazterrak etxeko traste zahar eta handiak uzten dituzte azken aldian, hau da jendeak etxeko sofa, altzari eta trasteak edozein lekutan uzten ditu. Udalak jakinarazi du horretarako Malerrekako Mankomunitateko langileak ostatu gero hango langileak etxera etorriko direla trasteak eske, ez baitira edozein bazterretan utzi behar. Bertzela udalak neurriak hartuko omen ditu.

Ander Erasun bikain

Urriaren 7an jokatu zen Etxarri Aranatzan

Nafarroako lehenengo mailako aizkolari txapelketaren finala. Bortz aizkolarien artean zegoen Ander Erasun, finaleko gazteena, eta meritu handiko hirugarren postua lortu zuen. Floren Nazabal txapeldunetik 6 minutu baino gehiagora gelditu zen, baina bigarren egin zuen Jon Rekondorekin lehia handia ibili zuen eta lau kanardiko, lau ontzako eta bi oinbiko mozteko leitzarrak baino 50 segundu gehiago behar izan zituen.

Aitzinetik, irailaren 30ean Aizarnazabalen Euskal Herriko bigarren mailako aizkolari txapelketako finalean ere Aritu zen Erasun eta bigarren gelditu zen, Jon irazu gipuzkoarraren atzetik. Txapelik jantzi ez ba-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Ander Erasun Euskal Herriko lehen mailan ariko da.

zuen ere, hurrengo urtean Euskal Herriko maila nagusian arituko da herriko aizkolaria.

Aurtizko bestetan Gozategi taldea

Itxura polita hartzen ari da Aurtizko bestetako egitarauak. Gazteak burubelari ari dira lanean eta egitarau zehatza hurrengo TTIPi-TTAPAn ikusi ahal izanen da. Aurrerapen gisara, larunbat gauean kontzertu polit eta eder-

ra izanen da, berriki 25 urte bete dituen Gozategi taldearekin.

Beraien 25 urteurrenarekin batera disko bat grabatu dute beraien kanta mitikoekin (Nor nori nork, Kalanbre-ak...), Azaroaren 8an aurkeztuko dute prentsaurrean eta Aurtizko bestetan azaroaren 10ean gauerdetik aitzinera beraien diskoa aurkeztuko dute primizian, lehenengo plaza izanen baita. Animatu!



GRUPO TANATORIO TALDEA

IRACHE

MALDAERREKA S.L

24 ORDUKO TELEFONOA

948581959 | 948637404

LEKUNBERRI | BERA (SAN JOSE) | LESAKA | ELIZONDO (BAZTAN) | LEITZA | BETELU
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)

- TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA -
- LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK -

GIZARTEA → BERTAKO SAGARRAREKIN EGITEN DUTENEZ, BI URTETIK BETETZEN DITUZTE KUPELAK

Sagardoa egiten ari dira aurten ere Pentako etxean

Aurtengo sagarrak zuku gutti duela diote

Fermin ETXEKOLONEA

Aurten ere Penta etxeko sagardo barririk bertako sagarrak erabiliz betetzen ari da 4-5 laguneko herritar taldea. Bi urtetik, sagar urtea denean egiten dute lan hau, etxerako sagardoa lortzeko. Aurten, utzitako prentsa zahar batekin egin dituzte lanak eta dagoeneko bi barrika bete dituzte, sagarraren zuku hori sagardo goxoa bihurtuko delakoan. Gehixeago ere betetzeko asmoa dute, baina ikusi behar, aurtengo lehortearen ondorioz, sagarrak zuku gutxi ateratzen duela aipatu baitigute.



ARGAZKIA: ARANTXA DIEZ

Irail hondarrean eta urri hasieran betetako kupelak, Pentako etxean.

Eva Elizalde Gazteguneko arduradun

Eva Elizalde Telletxea izango da berriz ere Gazteguneko arduraduna ikasturte honetan,

maiatza bitarte. Eskola zahararen egokitutako gune horren garbiketaz ere bera arduratuko da, horrelaxe erabaki baitzuten guratsoek bileran. Lehen, guratsoek beraiek txandaka gar-

bitzen zuten Gaztegunea asteburutan. Asteartetik ostiraletara 17:00etatik 19:00etara irekiko du Gaztegunea eta asteburu eta jai egunetan guratsoek irekiko dute txandaka.

FLASH

Julia Hualde omendua

Larunbat honetan egin du Arkupeak elkarteak aurten 85 urte bete dutenei omenaldia. Tartean zegoen Ortzaileneko Juli Hualde ere. Zorionak hemendik!

Joaldunak langile

Inauterietan ez ezik, beste urte garaietan ere gero eta langileago dabilta gure joaldunak. Azken asteotan, Elgorriagako Onddo eta Zizen Kofradiaren Egunean eta Zugarramurdin, Alex de la Iglesia-ren pelikulan aritu dira joareak jotzen. Azken honetatik batez ere nekatuak itzuli ziren, orduak eman behar izan baitzituzten joareak gerritik zintzilik, zuzendaria irudiekin gustora gelditu arte.

Heriotza

Tolateako Jesus Murtuberria irailaren 28an hil zen Donezteben, 90 urte zituela. Doluminak familiari.


BIOMASAZKO GALDARAK

HASI AURREZTEN
Luzera, merkeago ateratzen da!



Finantzatzeko erraztasun guztiak jartzen dizkizugu

GALDETU BELDURRIK GABE!



Manparak 334€tik hasita*
Komuneko altzariak 289€tik hasita*

H. LOPEZ

Santiago, 93 ELIZONDO I.T. 948 452 126
info@honestolopez.com | www.honestolopez.com

*Manparak: 70x90cm, 6mm-ko kristal gardena
*Komuneko mobleak: 70cm luze, pareta argia, ispilua eta mobleak

MG
mantenimientos
GORRITI

Mota guztietako galdarak:
gasa, pelleta, gasaleoa eta egurra

Martxan jartzea
Mantentze-kontratuak
Konponketak
Ordezko piezak

M. 620 97 82 97
Santiago, 93 ELIZONDO

BEINTZA-LABAIEN

OSPAKIZUNAK → URRIRUKO BESTAK OSPAKIZUNA ETA KIROLA UZTARTU ZITUEN

180 lagun bildu ditu Urriruko Bestako bederatzigarren aretze jateak

Euskal Herriko harri txikien txapelketan Aimar Irigoien nagusitu zen

Amaia MINDEGIA

Giro ederra izan zen Urriruko bestan eta urtero bezala, ospakizuna kirolarekin uztartu zuen. Hitzordurik garrantzitsuena Euskal Herriko harri txikien txapelketa izan zen eta hor, seigarren urtez segidan, Aimar Irigoien suertatu zen garaile. Baina hori baino lehen, Nafarroako bigarren mailako kategorian ez galtzeko norgehiagokajokatu zuten Patxi Mindegia zubietarrak eta Beintza-Labaiengo Jesus Etxeberriak. Aizkolari bakoitzak bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat moztu behar zuen eta azkenean, 15 segundu eskasengatik, Etxeberria nagusitu zen. Beraz, herritarrek segituko du bigarren mailan eta zubietarra hirugarren mailara jautsiko da.

Txapelketa ofiziala ez bazen ere, ikusmin handia piztu zuen aizkora apustua izan zen ondotik herriko bi hirukoteren artean: Miguel Angel Etxeberria eta Jesus Etxeberria; Jacinto Etxekonanea eta Peio Telletxea; eta Xabier Mindegia eta Jose Luis Telletxea. Azken hauak izan ziren garaile.

Aizkora apustuaren ondotik Xorroxin Irratiak Behikaka zozketan herriari tokatutako saria herriko etxe guztien

artean zozketatu zen, beraz, laupabost sari izan ziren: Fiteroko bainuetxean asteburu bat eta Nekatur landetxean 2 gau eta 2 gosari izan ziren sari hauetako batzuk. Zorionak sarituei!!!

Gauean, 180 pertsona inguru bildu ziren afaltzera. Urtero bezala, salda beroarekin hasi zuten afaria eta ondotik, bigarren urtez, Iruñeko Adasha dantza taldeko den Zenotzeko Rebeka Ericen dantza saioa eskaini zuen jendearen ikusmina piztuz. Entsalada eta haragia ausarki izan zen. Aipatzekoa da aretzea bikaina zegoela, beti bezala. Postrerako gazta eta irasagarra eta fruta jan zituzten, Rebekaren sabeldantzaren erritmoan. Ondotik, kafea eta kopak. Aierrik taldeak karpan bildutako jendea girotu zuen.

QUEIMADA ETA KONJUROAK

Aurten nobedade gisa Galiziako bi lagunek Queimada prestatu zuten afalondoan. Ikusgarria izan zen haien konjuroa, musika ozena, baita jarrita zeukan kapa ere.

Ittur-Ondo elkarteko batzordekideez gain, hainbat laguntzaile izan ziren Urriruko Besta aurterra ateratzeko lanetan. Antolatzaileak pozik daude egindako lanak emaitza ona izan duelako bederatzigarren urtez eta heldu den urterako gogotsu daude.



ARGAZKIAK: ARANTXA ITURRALDE

Goiz goizetik erretzen jarritako aretzea gustora jan zuten arratsean 180 bat lagunek. Aurretik, herri kirol ezberdinekin gozatzeko aukera izan zuten eta herritarren arteko aizkora apustuan, Jose Luis Telletxea eta Xabier Mindegia nagusitu ziren.

LANGABEZIA → %4,37 GOITI EGIN DU IRAILEAN

1.242 lagunek emana dute izena Doneztebeko Enplegu Bulegoan



TTIPI-TTAPA

Abuztu hondarrean baino 52 langabetu gehiago zeuden Doneztebeko Enplegu Bulegoan izen emanak irailaren 30ean, 1.242 zehazki. Nafarroa osoan %2,74 igo da langabezia irailaren eta gurean oraindik gehiago, % 4,37.

Irailaren 347 kontratu egin ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez (abuztuan baino kasik 200 guttiago), eta horietatik 41 bakarrik izan ziren mugagabeak.

Adina eta sexuari dagokionez, 25 urtez goitiko gizasemeen artean 524 lagun daude langabezian, abuztuan baino 5 guttiago. Adin tarte horretako emakumeen artean, aldiz, 535etik 572ra igo da langabetu kopurua. 25 urtez beheitiko gizasemeen artean, 81etik 92ra igo da langabetu kopurua eta adin tarte horretako emakumeetan artean ere 45etik 54ra pasatu dira lanik gabe daudenak.

Zerbitzuen arloak segitzen du langabe gehien izaten eta irailaren igoera nabarmena izan duen lan arloa izan da, 746tik 791ra igo baita langabetu kopurua. Industria arloan ere 190etik 203ra igo da langabezian daudenen kopurua. Eraikuntzan, aldiz, 163tik 161era jaitsi da langabetu kopurua. Nekazaritzan lau langabetu guttiago daude, 25, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean 62 lagun daude langabezian, abuztu hondarrean bezalaxe.

Jarraitu lezaguzu. Badabil.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

kontakturikGABEko txartela

Biiip... bezeroendako bakarrik

Erosketak txartelarekin ordaintzea orain sekula baino azkar, eroso eta errazagoa da. Eta beti bezain segurua.

Nahikoa da kontakturikGABEko txartel berria datafonora hurbiltzea, biiip... bat entzun, eta kitto!

Interesatua bazau, etorri gure bulegoetara eta eskatu zure Nafarroako Rural Kutxaren kontakturikGABEko txartela.

www.sincorcontacts.crnafarra.com | Jarri gaitzazu

*20€ baino gutxiagoko ordainketetan ez da beharrezkoa PINa sartzea

Bilatu ikur hau kontakturikGABEko ordainbidea duten dendak aurkitzeko

URROZ

INGURUMENA → LEURTZAKO URTEGIA

Gero eta jende gehiago hurbiltzen da Baztan Bidasoaldeko hondartzara

Herriko bestetan, aldiz, jende guttiago ibili da

Joseba URROTZ

Alegia, Leurtzako urtegiari ari gara, itxuraziaz baino jende gehiago etorri baita, denboraldiaren azkeneko asteetako datuen faltan. Egia da egin duen eguraldiak lagunduko zuela, egun lainotsuetan apenas etortzen baita jenderik. Udaberriaren eguraldi polita hasi orduko dator jendea asteburutan. Uztail hasieratik berriaz, egunero.

Halere, krisi garai hauetan seguraski izanen du zerikusirik debaldeko plana dela Leurtzara denbora pasa etortzea. Baina itxuraz krisiarengatik, Nafarroako Gobernuak Leurtzako Natur Aisiarako Eremuaren mantentze-lana egiteko diru laguntza murriztu du, eta horrek eragina izan du aipatuko mantentze-lanean. Egoera zaila da benetan, gauzak hobetzen ez badira, ezinezkoa izanen da azpiegiturei eustea, gainera gero eta jendetza haundiagoa etortzeak, mantentze-lan behar haundiagoa sortuko baitu.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Jende guttiago ibili da San Migel bestetan

Iaz aipatu bezala, garbi dago gero eta gehiago herriko bestak, bertaekoentzat dirrela, nahiz eta egia izan ortziral eta larunbat gauetan eguraldia ez zegoela batere atsegina kanpotik jendea etortzeko. Aurten egun bat guttiago izan da, eta ikusten da nahiko dela, gustorago hartzen baita gero urtean zehar bertze besta egun bat edo bertze. Hala ere, egin diren ekitaldi guztietan jendea ibili da eta lehenbiziko aldiz larunbatean, txiste kontalari eta guzi egin zen kuadrilen afariak ere arrakasta aunitz izan zuen. Sukaldari artistek 60 lagunendako sekulako paella egin baitzuten, baita haragia erre ere. Eskerrak hemendik denen partetik haien lanari. Igandean, berriaz, trikixita jaialdia egin zen eta hemen ere jendea bildu zen plazan.

ARKUPEAK → BIDAIAK

Benidormetik bueltan dira elkarteko erretiratuak

91 bazkide izan ziren hamabi egunez

Fernando ETXEBERRIA

Arkupeak elkarteko 91 bazkidek hamabi egun eman dituzte atsedan hartzen Benidormen, irailaren 27tik urriaren 9ra. Lehenbiziko egunean bi orduz euria egin zien, baina gaine-

rakoan eguzkiaz eta hondartzaz gozatzeko modua izan dute.

Joan den igandean egin behar zuten bestaren berri hurrengo alean emanen dugu, baina etorkizunera begira ere bi ateraldi prest dituzte. Lehenbizikoa urriaren 25ean Lodosara eginen dute 158 lagunek eta bigarrena, azaroaren 5etik 14ra Lan-

zarotera, 36 bazkiderenkin.

Modu berean, ikasurte berriarekin informatika ikastaroak ere antolatu ditu Arkupeak elkarteak Beran eta Elizondan, frantses ikastaroan Beran eta Donezteben. Azaroan hasiko dira.

Joan den urtean bezala, Koldo Martinez nafarroako Ospitaleko



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Gustora ibili dira jubilatutak Benidormen barna.

UCIko medikuak *Bizitamentua, heriotz duina eta aurrez emandako borondateak* so-lasaldiak eskainiko ditu

azaroaren 15ean Donezteben eta azaroaren 22an Leitzan. Heldu den urteari begira ere bilera egiten ari dira.

EUSKARA → AURKEZPEN LUNTAK EGINEN DIRA AZARO HASIERAN

Solaslaguna egitasmoa eginen da aurten ere herriz herri

Hitano lagunak eta Mendilagunak taldeak jarriko dituzte martxan

TTIPI-TTAPA

Euskaraz solasteko ohitura dutenak, euskaraz solasteko ohitura ez dutenekin elkartzeari helburua solaslagunaren helburua. Aitzineko urteetan aritutako hainbat talde irailean eta urri hasieran hasi ziren lanean. Talde berriak, berriz, urri bukaera eta azaroa bitartean hasiko dira, baina apuntatzeko aukera urte osoan egonen da. Iaz osotara 66 lagunek eman zuten izena, eta horietatik 62 txertatu ahal

izan genituen taldeetan. Baztanen 5 talde, Malerrekaren 3 eta Bortziriaren 4 ibili ziren, oraingo jasotako datuekin horietatik bederatzi mantenduko dituzte. Antolatzaileek iazko kopurua handitzea espero dute.

Aurreko urteetako talde eta ekimen batzuk errepikatuko badira ere, berrikuntzak izanen dituzte aurtengo kurtsoan. Guraso taldea pasa den urtean jarri zen martxan. ikastetxeetako gurasoendako propio prestatutako saioak dira. Gurasolaguna proiektuaren bitartez, familian eta ikastetxeetan ematen den erabilera eragitea da helburua.

Herri batzuetan hitanoaren erabilera gaitzen

ari dela ikusirik, hitano lagunak taldea sortu nahi dute aurten. Euskaldun osoak direnei bideratua dago eta gure hita eta noka aberasteko eta naturaltasunez solastatzeko taldeak dira. Jada hiru urte dira, solaspoteoa antolatzeko dutela aurten lagarrena izanen da. Elizondon, Donezteben eta Beran antolatu izan dute eta aurten Elizondora bueltatzea egokituko da. Jendeak, inguru erraz batean ireki eta ezagutzeko aukera izanen du. Hilabete behin antolatzeko diren saio osagarriak ere izanen dira aurten. Eskualde an parte hartzen duten solaslagunendako eta herritarrendako irekiak daude.



UTZITAKO ARGAZKIA

Solaslagunak Artikutzara egindako txangoan.

Mintzapraktiketan parte hartzen duen jendea ezagutzeko aukera ematen dute saio hauek. Ikasturte honetarako, saio osagarri berria sortzea erabaki dute solaslagunak eta Mendilagunak antolatuko dituzte bi hilabete behin.

Aitzineko urteetan bezala, aurkezpen luntak eginen dira Bera, Doneztebe eta Elizondon azaroko lehenbiziko bi asteetan zehar. Bertara agertzen denak, solaslagunari buruz informazioa galdetzeko aukera izanen du, talde-

ak nola funtzionatzen duten, zein den egitasmoaren helburua, nola parte hartu, aitzineko urteetan parte hartutako solaslagunak ezagutzeko eta hauen esperientzia aditzeko aukera...

Apuntatzeko eta informazioa eskatzeko bideak: Solaslagunaren txokoan: solaslaguna@topagunea.org; Tel.: 610920673; Bortziriak, Malerreaka eta Baztango Euskaltegietan. Bortziriak eta Malerrekako mankomunitatean, baita Baztango Balleko Etxean ere.

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

UDAZKEN-NEGUKO KOLEKZIO BERRIA

edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toailak

Tafalla, 13 • IRLINEA • 948 230 634

GIZARTEA

GIZARTEA → MOZIOA EZTABAIDATZEN ARI DA UDALEZ UDAL

Herri baten ikurrak ezin direla inposatu dio hautetsi taldeak

Espainiako bandera jartzeko eskutitzak jaso dituzte zenbait Herriko Etxetan

TTIPI-TTAPA

Azken hilabetetan Espainiako Gobernuak Nafarroan duen Delegazioetik Espainiako bandera jartzeko erranez eskutitzak ailegatu dira eskualdeko zenbait Herriko Etxetara, tartean Bera, Lesaka, Elgorriaga edo Baztangoarra. Honi erantzunez, udalez udal aztertzen ari den mozioa aurkeztu zuten urriaren 5ean Baztan Balleko Etxean.

Mozioak dioenez, «Ikurren eta banderen gaia, eduki politiko eta karga subjektibo emozional handiko gaia da, mundu guztian zehar. Euskal Herria bezalako nazio zapalduen kasuan, ikurren gaiak garrantzia handia hartzen du, bai zapalduen ikuspuntutik baita zapaltzaileenetik ere». Euskal Herria nazio gisa «aitortzen dugunontzan, gure ikurrak; gure herriaren existentzia, historia, eskubide eta askatasunaren sinbolo dira. Munduko beste herrien pare garenaren adierazle hain zuzen ere. Aldiz, espainiar zein frantziarrentzat, Euskal Herrian zehar beraien banderak kokatzea, herri honen espainiartasun eta frantziartasunaren adierazle da», dio mozioak.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Mozioa aurkeztu zuten zinegotzi eta alkateak urriaren 5ean Baztan Balleko Etxean.

Azken urteotan era guztietako ekimen politiko instituzional, ekitaldi, manifestazio, protesta eta omenaldiak egin dira gure ikurren alde, eta horren kontra isunak, inabilitazioak, ebazpen judizialak... jaso dituztela salatu dute hautetsiek: «Momentu historiko honetan Euskal Herrian zein atzerrian bake eskariak gailentzen ari direnean, espainiako Gobernuak eta bere ordezkariak gerra ekimenak bultzatzen dituzte».

Horregatik, udaletan aztertu eta zenbait kasutan onartu den mozioaren lehen puntuan «herri baten sinboloak eta ikurrak ezin direla inposatu» adierazten zaio Nafarroako Gobernuari, baita Espainiako Gobernuak Nafarroan duen delegazioari eta ahalegin horretan ari diren guztiei. «Euren sin-

boloak inposatzeagatik, gure nortasuna, gure pentsamoldea eta gure izaera ez dutela aldatuko argi utzi nahi diegu» diote.

Gisa berean, «Espainiako bandera jarraztea eta ikurrina kenaraztea herritarren gehiengoaren borondatearen kontrakoa dela» salatu nahi dute, «herri honetako gehiengo politiko eta sozialaren kontrakoa hain zuzen». UPN eta bere gobernuak duten jarrera eta honetaz egiten duten «erabilera partidista» ere salatu dute, eta «herriaren alde lan egin eta herriaren kezkez arduratu behar» ere, ikurrak inposatzea eta gure nortasuna ezabatzeko ahaleginetan aritzea inolaz ere ez dela bidea» adierazi dute. Modu berean, konpromisoa hartu dute «gure ikurren alde, eta inposatutako ikurren

aurka, elkarrekin herri ekimen bat lantzeko».

Mozio hau dagoeneko onartu da Baztan, Bertizarana, Zubieta eta Iturengo udaletan eta Beran ere, ildo bereko mozioa onartu dute.

GURE IKURRAK ALDARRIKATZEKO BESTA BERAN URRIAREN 20AN

Berako Udalak «gure ikurrak aldarrikatzeko besta» antolatu du Beran urriaren 20an.

Ekitaldia 17:30ean izanen da Altzateko plazan eta bertan parte hartuko dute, herriko dantzariak, txistulariak, trikitilariak, musikariak, bertsolariak, txalapartariak eta kantariak. Testu bat irakurriko da eta ikurrina bat altxatuko da Altzateko plazan. Bukatzeko, bildutakoentzat sagardoa eta txistorra jatea izanen da. Bestan parte hartzeko deia egin du Udalak.

BIDASOA

Bide Berdeak kaltetu dituen ondasunak zerrendatuak

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak behin-behinekoz onartu du Endarlatsa-Donetztebeko zatian Bidasoaren lehengo trenbidea egokitzeko proiektua bide berde gisa erabiltzeko. 1. fasea, eta kaltetutako ondasun eta eskubideen desjabetze-izapideari ekin dio. Bertziko Turismo Partzuergoak da proiektuaren sustatzaile eta desjabetzeen onuradun. Behin-behineko onarpen horren ondoren, 15 egun balioduneko informazio-aldi bat dago proiektuari alegazioak aurkezteko, eta haren dokumentazioa kontsulta daiteke Iruñean edo bide berdearen 27 bat kilometroko zati horretan kaltetutako lur-sailak dituzten Herriko Etxetan (Doneztebe, Sunbilla, Igantzi eta Lesaka). Egun horiek igarota, kaltetutako behin betiko zerrenda jendaurrean jarriko da eta akordio-proposamena aurkeztuko da. Izapidea osatuta dagoenean, Bertziko Partzuergoak 2013ko udarako akituta izanen dela aurreikusiten den obra lizitatu ahal izango du. Garrantzi handieneko obra gisa, behealdeko pasabide bat eraikiko da N-121-A errepidearen azpitik Alkaigatik pasatzean. Nafarroako Gobernuak uztailearen 4an onartu zuen proiektua PSIS aitor-tzea; horri esker, zati hori egokituz zitekeen turismo, kirol eta aisialdi-ko bide moduan.

KIROLA → AZAROAREN 4AN

Mendi ateraldia antolatu du Gazte Txokoak

Bi ordu inguruko itzulia egingen dute, nahi duen guztiari zabaldua

TTIPI-TTAPA

Aurreko alean aipatu genuen moduan, lanean hasia da ikasturte berrian Gazte Txokoa. 12 eta 16 urteko gazteak ari dira dagoe-

neko ping-pong txapelketan eta beste jokoak eta ekitaldiak ere prestatzeko gogoz hasi dira. Horren erakusgarri, azaroaren 4rako antolatu duten mendi ateraldia. Igande horretan, eguraldiak laguntzen badu, goizeko 10:00etan abiatuko dira plazatik eta bi ordu inguruko itzuli erraxa egingen dute, edozein herritarrek egiteko modukoa.



Baialtzinikin...

Oriamendi 2010 enpresak hilabetero ateratzen duen rankinean, B multzokoen artean iraileko erremontelari onena izendatu zuela Aritz Zubiri. Lau partida irabazi eta bi galdu zituen, baina tantu guttiko aldearekin. Sailkapen hau egiten hasi zirenetik bigarren aldia da Zubiri jokalaria onena izendatzen dutela.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Euskal Jaiarekin maiatza bitarte itxi ditu ateak Ixkibik

Joan den urriaren 6an, herriko mendizaleak Arantzara joan ziren, 5 bat orduko ibilaldian. Ekaitza elkartean ederki bazkaldu eta berriz ere Goizuetara bueltatu ziren autobusean. Heldu den urtean aranztarrek bisita itzuliko diete.

ARANO

OSPAKIZUNA → AURTEN AZAROAREN 10EAN IZANGO DA

San Martin Eguna prestatzen hasia da Jai Batzordea

Kontsejun jarri zen buzoian bilduko dira aldizkarirako kolaborazioak

Ainhoa ANSA

Azaroaren 10ean ospatuko da San Martin eguna aurten Aranon. Azken urteetan egin izan

den bezala, arratsaldeko jaia izango da eta orain ari da jai batzordea antolaketan. Aurrera daitekeena, betiko ereduari jarraituz, kanpotik zerbait ekarriko dela beti bezala eta herriko sortzaile eta lanean ere leku bat izango dutela egun horretako festan. Taloak eta gaztainak ere erreko dira be-

tiko moduan. Argazki lehiaketak lehengo urtean eten bat izan zuen, baina aurten berriz saiakera egin nahi du jai batzordeak. Horregatik, argazki erakusketa polit bat antolatze aldera, denen parte hartzea eskatu nahi da lerro hauetako Kontsejura argazki polit, zahar, berezi...horiek eramanez.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Joan den urtean bezalaxe, aurten ere egitarau zabala izango da San Martin jaietan.

Azaroaren 9ra arte utzi ahal izango dira argazkiak edota kopiak tabernan (atzean izena jar-

txeaz ez ahaztu) eta denekin erakusketa montatuko da larunbat horretarako.

LEITZA

KULTURA → ALKEK ANTOLATUTA

V. Mikologialdia izanen da urriaren bukaeran

Urriaren 28an astean zehar bildutako ontto eta xixen erakusketa egingo da

JM BARRIOLA

Urriaren 22tik 28 bitartean ALKE Leitzako kultur taldeak eta Mendibil Aurrerako mendi taldeak Udala eta Kaxkabeltza komertzianteen elkarteen eta Landaberri garagardotegiaren laguntzarekin, ospatuko da aurten V. Mikologialdia. Astean zehar lagunarteak mendietan ibiliko dira perretxikoak biltzen. Ostiralean, jendeak biltzen dituen xixak karrapeko tabernara eraman beharko dituzte 07:00etatik 08:00 arte. Larunbatean 27an, goizeko 09:30ean, Mendibil aurrerako mendi taldearen eskutik, plazatik abiatuta, guraso eta seme-alabekin onttoak biltzera joanen dira Leitzalarreko mendietara. Arratsaldean sailkatu egingen dira. Igandean, urriaren 28an, goizeko 11:30etik aurrera, udaleko karrapean sailkatutako ontto-xixekin erakusketa jarriko da, arratsaldean ere 16:30etik 18:30era haurrentzat tailerrak eta eskolan egindako marrazkien erakusketa egingen dira, eta ondoren zozketa.

Honetaz gain, didaktikoki, Mikel Illarregiren proiektioa jarriko da ka-

rrapean, xixa eta onttoen dastaketarekin batera. ALKE kultur taldeak herritar guztiak gonbidatzen ditu parte hartzera bai bilketetan eta baita erakusketakoan pesta ederra egin dadin. Honekin batera mendian erantzunkizunez ibiltzeko deia egiten du, behar diren baino perretxiko gehiago ez hartzeko eta zaborrak ez uzteko mendian.

Udal aurrekontuak

Udalaren aurrekontuak lantzeko Bilduk partehartzea sustatu nahi du. Horretarako urriaren bukaeran bilkura zabalak abiatuko dira. Aurrekontuak Udalaren jardueran oinarrituko tresna dira eta urte oso-rako ibilbidea finkatzen dute, beraz oso garrantzizkoak izaten dira.

Aurrera Eguna arrakastatsua

Urriaren 6an giro ederrean ospatu zen Aurrera elkartearen eguna. Elkarte honek 350 bazkide biltzen ditu eta urtez urte ekarpen handiak egin dizkio herriari orain duela 80 bat urte sortu zenetik. Bazkarian 120 lagun bildu ziren eta egun guztiko egitarau mardula antolatu zuten jendearen harretara erakarriz.

Ikastetxeko igogailua bukatuta

Erleta eskolako igogailua jartzeko lanak amaitu dira. Lanak Go-



ARTXIBOKO ARGAZKIAK

Astean zehar bidlutako ontto eta xixekin erakusketa egingo da karrapean urriaren 28an.

rritz, SL enpresak egin ditu eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso dute. Igogailua jarri eraikineko muga arkitektonikoak ezabatzeo aspaldiko egitasmoa gauzatu du Udalak.

Ziztada bat

Euskarazko Komunikazio Taldeak, Berria Taldea deitzen dugun horrek, *Zure ziztada behar dugu* kanpaina jarri du abian. Leitzako Euskara Batzordeak kanpaina horrekin bat egin nahi du, eta Leitzako herritar eta euskaltzale guztiak ere ekimen horrekin bat egitera animatu nahi ditu.

KIROLA → AIZKORAN ETA HARRIJASOTZEN

Azpitxapeldun izan dira Rekondo eta Urrutia

Oraingoan ez da txapelik, baina meritu handi-diko bigarren postuak lortu dituzte Jon Rekondok eta Josetxo Urrutiak Nafarroako aizkolari eta harrijasotzaile txapelketa nagusietan. Bietan ere, maila bat gorago daudela erakutsi zuten Nazabal eta Bertiz txapel-dunek, baina leitzarrak "beste arteko" onenak izan dira. Aizkolari txapelketaren finala urriaren 7an jokatu zen Etxarri Aranatzeko eta harrijasotzaileena irailaren 29an Igantzin. Azken honetan, lanean ageri da Josetxo Urrutia ondoko argazkian.



EHIZA → HIRU POSTU HUTSIK GELDITU DIRA

Uste baino diru gutxiago eman dute aurten ehiza postuek

lazkoaren erdia lortu du udalak enkantean, 9.000 euro

Juana Mari SAIZAR

Azken alean aipatu bezala uso enkanteak burutu ziren herrian eta aurtengoan uste baino diru gutxiago eman dute ehiza postuek. Gainera hiru ehiza postu hutsik geratu ziren eta udalak aste bateko epea eman zuen postuak hartzeko eta diruaren eskaintzari prezioa jarri zion; aste bat pasa eta inork ez duenez apusturik egin berriro libre gelditu dira. Kontuak kontu aurtengo diru sarrerara osotara 9.000 eurokoa izan da, iazkoaren erdia.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Eskulanetako taldea udaletxe gaineko solairuan ageri da argazkia, iaz berriro zen gela zikintzeko arriskua zegoela eta alboko gelan ari dira orain, argia eta mahaia eskura jarri zaizkie eta oso gustora dabilta.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Aurreko atalean, hainbat ikastaroren be-

rri eman genizuen, eta oraingoan eskolako umeen eskolaz kanpoko ekintzei buruz ariko

gara; alde batetik txikiak psikomotrizitatean hasi dira ostiralean 16:30etik 17:30era.

Horretaz gain pandero eta trikitixa ikastarohasi da berriro ere, herriko gaztea den Gorka Arraiagok erakusten du eta dagoeneko edozein ordutan hasiak gara trikitixa soinuak entzuten herrian, nonbait ikasitakoa praktikan jartzen hasi dira umeak! Gustora ari diren seinale! Beste ekintza bat ere martxan jarri da, herriko jostun jubilatua den Juany Arbilagaren eskutik, eta honek nahi du ten neska eta mutilei jostorratza eta josteko makinaren berri eman eta josten erakusten die, hau ere iaz hasitako lana da eta gainera musutruk egiten du asteazken arratsaldetan.

Aipatu iaz multikirola ere bazegoela baina aurten ez da talderik osatu.

MERCHE MODA HOMBRE

Giovani Valdi • Sandro Sellini • Caramelo gala
Serapio Mugika, 11 • 20302 IRUN • 943 612 626
www.capelettimercheirun.com

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → HAMAHIRUGARREN EDIZIOA BETEKO DU AURTENGOAN

Kirikoketa besta antolatu du Jo ala Jo taldeak urriaren 20an Arizkunen

120 lagunendako bazkaria eta arratsean kontzertua prestatu dute

TTIPI-TTAPA

Jo ala Jo taldeak antolatzen duen Kiririkoketa bestak hamahirugarren edizioa beteko du urriaren 20an Arizkunen. Egun horretarako egitarau zabala prestatu dute. 10:45ean ibilaldia egingen da Arizkungo herritik barna Gamio-xarreko Dolaretxera, musikariekin, sagar joleekin, asto eta sagarrek, erraldoi eta dantzariekin. 11:00etan ate irekitzea. Segidan, sagar jotzea, estutzea, zuku dastaketa eta kupe-laratzeta egingen dira. Lanak akitutakoan, Kiririkoketa Jotzea egingen da. Bitartean: Nafarroako Sagardoan dastaketa, taloak, artisauak, gaztainak, musika, azalpenak eta bertze izanzen dituzte



UTZITAKO ARGAZKIA

29 autorentako aparkalekua Balleko Etxearen gibelaldean

Balleko Etxearen gibeledoko aldeko parkina handitu eta bederatzita toki gehiago egin ditu Udalak. Horretarako, lehendabizi, udalarena zen eremu publikoa berreskuratu eta, ondotik, autoak aparkatu ahal izateko parkina handitu du. Orain, dena 29 toki daude, horietatik 2 ezinduendako erreserbatuak. Autoendako aparkalekuen afera arazo nahiko larria da Elizondon, azkeneko urteetan familia bakoitzeko auto kopurua eta auto-mugikortasuna handitu direlako. Udalak uste du herrien bilakaera ez dela autoen arabera antolatzen ahal, «jendeendako kalitatezko espazio urbano eta sozial baten arabera baizik» eta, horretarako, nahiz beharrezkoa diren aparkalekuak egingen dituen, herritarren kontzientzia aldatzea behar-beharrezkoa dela uste du.

Gamioxarra inguruan. 14:30ean bazkari Herrikoia antolatu dute 120 lagunendako. Txartelak ohiko lekuetan

daude salgai. Bazkalondan, 18:00 aldera herritik barna ibilaldia egingen da arratsalde pasan, kantu, dantza eta

soinuekin. Aurtengo Kiririkoketa Eguna behar bezala akitzeko, 21:30ean kontzertua izanen da.

Langabezia dauden euskara ikasleendako laguntzak

Deialdiaren helburua 2011-2012 ikasturtean Baztango euskaltegian euskara ikasten aritu diren eta langabezia dauden edo ikasleak diren herritarrak diruz laguntzea da. Diru-laguntza hori, gehienez ere, ikastaroaren matrikularioak sortu duen gastuaren %50eko izanena da. Eskabideak ikastaroak egin ondoan Udalako erregistroan aurkeztu beharko dira urriaren 31 arte. Informazio eta dokumentazio guziaz Baztango Euskara Zerbitzuan (948 580006) edo www.baztangoudala.eu.

Kontsumo elkarteak

Urriaren 17an, atsaldeko 19:00etan, Arizkuneko sabaian, Barraskiloak kontsumo elkartearen aurkezpena eta bazkide bilketa egingen da.



Zure jarrerak, jokabideak, pentsamenduak edo afektuak aldatu nahi badituzu lagunduko dizugu. Bizitza personala eta harremanekin zerikusia duten arazoak lantzen ditugu: depresioa, antsietatea, dolua, fobiak, famili edo bikote arazoak, etab.

nahia
centro de psicoterapia zentrua

Erlategi plaza. 8 behea | ELIZONDO
615 717 320 | 626 021 643
nahiapsiko@gmail.com


BANAKA NAHIZ TALDEKA LAN EGITEN DUGU



Ordoki industrialdea | ARIZKUN
Tel. 948 453 259 | Fax. 948 453 423
betikopvc@betikopvc.com
www.betikopvc.com

%58ko aurrezpena

Gure sistema berriarekin %58ko **AURREZPENA**
lortuko duzu zure etxean



ETORRI GURE INSTALAZIOAK ETA GURE SISTEMA BERRIA IKUSTERA!
Leihoak | Kontraleihoak | Sarrerako Ateak | Itxidurak | Pertsianak | Moskiterak

BAZTAN

UDALA → NAFARROAKO GOBERNUAREN NEURRIAK

Murrizketek udal aurrekontuetan eragin handia izanen dutela salatu dute

Azienda lehiaketaren dirulaguntza desagertu da

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Gobernuak abuztuan aditzera emandako murrizketa neurriek eragin handia izanen dutela salatu du Balleko Etxeak. Sektorre guztietan izanen dira mozketak, baina diotenez, hau ez da izanen 2013ko aurrekontu eta proiektuak ezartzera-koan udalak izanen duen oztopo bakarra. Udalaren erranetan, UPN udalak gehiengoz hartzen dituen erabakiak helegiteen bidez gelditzen saiatzen ari delako.

Sektore batzuetan murrizketa handiak jasane eta bertzeetan laguntzak guztiz desagertu dira. Euskara Zerbi-

tzua duten udalek jasozten zuten diru-laguntza % 85 jaitsi da 10 urtean. Kontuan hartuz Euskara Zerbitzu gehiago sortu direla handia izan da beherakada. Euskara ari diren komunika-bideen kasuan %100 murriztu da, aurreten ez baitute dirurik eman.

ESKOLEN MANTENIMENDUA

Nafarroako Gobernuak eskolen mantenimendurako laguntzak murriztu ditu, baita eskoletako obrak egiteko ere. Horrela, Azpilkuetako eta Arizkuneko eskoletako teilatuendako ez diete hitzartutako %65eko dirulaguntza eman. Ondorioz egoera makurrenean zein zegoen kontuan hartuta Azpilkuetakoak bakarrik egin ahal izan dute eta kostua Udalak osoki bere gain hartu du.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Herri ttiketako eskolen besta ospatu zen Erratzun

Ikasle, Irakasle eta guraso aunitz bildu ziren irailaren 30ean Erratzun ospatu zen herri ttiketako eskolen besta. Erratzuko Damek (ihautekoak) bestara hurbildu zirenei ongi etorria egin zieten. Gero bi ibilbide egin zituzten; koxkorrek Gorostapoloraino Iñaribiletik pasata eta ttikiak zuzenean joan ziren Gorostapolora. Han sorpresa izan zuten Irrien Lagunak aritu zirelaketoz eszenatoki gainean. Ondotik denak Erratzura joan ziren bazkaltzera, Fanfarronak bandaren gibeletik. Bazkaria frontoian izan zen eta Erratzuko jendeak, auzolanez, herri menua eskaini zuen: taloa, postrea eta edaria. Taloak Eskolako amek egin zituzten eta postreak Erratzuko etxeek eginak ziren. 400 talo baino gehio egin behar izan zituzten jendea asetzeko. Ondotik BKZ-ren eskutik tirolina izan zen frontoiaren gibeletiko aldean eta aurpegi margoketa tailerra. Akitzeko Franxiskorekin dantzaldia eta zonaldeko produktuen loteen zozketa egin zituzten.

Enplegu Babestuko proiektuan %50eko murrizketa izan da. Horren ondorioz, 8 langile kontratatu beharrean 4 kontratatu dituzte. Eta gizarte laguntza batzuk ere desagertu egin dira. Ezintasuna dutenendako laguntza teknikoak lortzeko, haurra sortzen deneko eta 3. haurra izateagatik zeuden laguntzak dagoeneko ez dituzte ematen. Horretaz gain, etorkinen integratziorako Udalak planteatu zituen hainbat ekintza

ezin izan dira egin, laguntzak desagertu zirelako.

Azienda lehiaketaren dirulaguntzak osorik desagertu dira eta aurreten diru nekazaritza azpiegiturako dirulaguntzaren deialdia ez da atera. Pistak konpondu, bazkalekuak mantendu, itxierak egin, hiltegia eta horrelako gauzetako erabiltzen zen dirua ez dute jaso. Lau urteko planari dagokionez, hainbat bilera eta salaketa egin ondotik, Nafarroako Gobernua Irurita-

ko uren goi-hornidurako proiekturako dirulaguntza bideratzea lortu dutela erran du udalak, 250.000 euro inguru jasoz. Balleko Etxeak, lan hori egiteko urte hasieratik berari dagokion diruaren zatia prest duela aipatu dute. Hala ere, Nafarroako Gobernuak bideendako eta Amaiurko ur deponitzairendako dirua Gobernuak oraindik ez du eman.

Eguneroko funtzionamenduan ere oztopo ugari dituztela salatu dute. 2011ko ekainetik 9 helegite paratu ditu UPNk gai desberdinen inguruan. Horietatik bietan bakarrik eman zaio arrazoia eta bertze batean erdizka. Bi oraindik erabaki gabe daude eta bertze lauetan udalari eman diote arrazoia. Helegite hauekin, udaleko bulegoetako lana oztopatu eta herritarrei ematen zaien zerbitzu eta erantzunetan atzerapenak haundiagotzea eragiten dutela dio udalak.

GIZARTEA → URRIAREN 4AN EGIN ZEN EPAIKETA

Epaiaren zain gelditu dira tortura parodiarengatik auzipetutako lauak

Irainengatik
zigortzea
eskatzen du
fiskalak

TTIPI-TTAPA

Hainbat euskal herritarrek polizien aldetik jasan dituzten torturak salatzeke asmoz, 2010eko inauterietan torturen parodia egin zuten Elizondon. Horren ondorioz, lau gazteren aurkako epaiketa abian jarri zuten. Hasiera batean, kalumnia delituenengatik zortzi hilabeteke espetxe zigorra eskatzen zuten lau gazteentzat, baina epaiketan, irain gisa kalifikatu eta

bakoitzarendako 5.400 euroko isuna eskatu zuten fiskalak azkenean. Defentsak indefentsioa argudiatu eta epaiketa berriz egin zen urriaren 4an. Azken epaiketa honetan, fiskalak bere eskaera berretsi eta lau gazteak irainengatik zigortzea eskatu zuten. Defentsa-abokatujk berriz batetik froga objektiborik ez dela beraiek izan zirela baieztatzeko argudiatu du, eta bertetik tortura salaketa bat dela eta zigorra adierazpen askatasunaren kontrako zigorra izan zela adierazi zuen.

Azken epaiaren zain daude orain auzipetutak.



ÚTIZTAKO ARGAZKIA

Ogia egiteko ikastaroak Amaiurko Otsondo elkartearen

Amaiurko Otsondo elkarteak antolatuta, bi ogi tailer egin ziren irailaren 29 eta 30ean. Ogia lehenengo erara, hau da, amaorearekin egiten erakutsi zuten Juan-txo Aranburu eta Teba Gonzalez irakasleek. Gehienez ere 12 lagun aritzen ahal ziren tailer bakoitzean eta plaza guztiak bete zituzten Baztan eta Bortziritetatik joandako 24 lagunek. Aski gustora aritu zirela aipatu dute partehartzaileek.

Irurritako etxeak

Irurritako etxeen historia ezagutzeko konferentzia antolatu ditu Dorrea elkarteak Irurritako jauregian, 'Herri baten historia; Irurritako etxeak' izenburupean, Jose Maria Imizkoz historialariaren eskutik.

Urriaren 12an, 1366 eta 1646 urteen arteko hazkunde handiaz aritu zen Imizkoz eta urri-

aren 19an, 1646 eta 1850 urteen artean eman zen barridetasunaren blokeoaz eta ba-

serrien sorkuntzaz ariko da solasean, 17:30etik aitzinera.



Bai al zenekien

Irurritako dantzariak grabatu eta interneten partatu dutela beraien 'Dantza zatia'. 'Gazta Zati Bat' dokumentalaren webgunean proposatzen dute herri desberdinetako dantza taldeek dokumentalaren soinu bandako 'Mikel eta Loinaz' abestia deskargatu eta bideo bat egitea. Irurritakoaren proposamena: vimeo.com/50812318

Baztango
FRUTAS y VERDURAS
FRUTAK eta BARAZKIAK

Ze!Goxo
Santiago, 47 • ELIZONDO
(ikastola parcan)
948 580 859

10€ko erosketa egiteagatik Lodosako pikillo piper erre berri dozena bat OPARI
Urriak 26 eta 27 (Elizondoko feriak)

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → EHUNKA LAGUN ARI DIRA LANEAN

Ikusgarria izaten ari da Alex de la Iglesiaren pelikularen grabaketa

Lezean egindako “makroakelarrean” 700 lagun aritu ziren

Koro eta Margari

Ikusgarria izaten ari da Alex de la Iglesiaren pelikularen grabaketa.

Astelehenean Etxeberriko belaiean ‘Braveheart’ gisako irudiak ikusi ziren: 200 lagun lasterka, oihuka, irrintzika eta zalapartaka.

Ortzegun arratsean beheitiko karrika eta Lapiztegian aritu ziren: ilunabarrean hasi eta gau osoz iraun zuen grabaketak. Horretarako argiteri publikoa itzali zen, eta etxeetatik argirik ez ateratzea eskatu zen.

rrena Mikel Laboren ‘Baga-biga-higa’ musika-rekin egin zen grabaketarena izanen da: 700 lagun mugitzen musika horren doinuakin, txalaparta eta burdin hotsek lagundurik, eta joaldunen joariak adituz. Iru-di biziki pulita behar du izan hori. Horretaz gain ere, bitxia izan zen Carmen Maura ‘Baga-biga-higa’ kantatzen ikustea...

Oraindik aste batez aritu beharrak dira hemen barna, eta aditu dugunez, jende hauek gustura daude gure artean, eta ez da harriztekoa: Barrantzekoek marmitakora konbidatzen, Sartzarrekoek txokolata eta gatobazkera, eta Bordakoetxeoek txanpainera... hala-jokoa!!!



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Etxeberriko belaiean 200 lagun ibili ziren lasterka, oihuka eta zalapartaka.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Solfeoarekin batera kantu zaharrak ikasten ari dira

Gure bazter hauetan kantuz aritzeko usadio handia izan da betitik, baina seguraski ostatueta musika jartzen hasi zirenetik, afizione hau ttikituz gan da, eta orain ez da errex mahain inguruan, edo ostatuan kantuz ari direnak aditzea. Baina orain ideia pulita izan du Guraso Elkarteak: solfeoarekin batera kantu zaharrak ikasteko aukera eman baitu bi herrietako haurrei. Urriaren 18an hasi eta ortzegunero, arratsaldeko 17:30ean Zugarramurdiko eskoletan emanen da ikastaroa. Irakaslea Erratzun bizi den Fernando Lete izanen dute. Ea aspaldiko usadio xahar hau, gure haurren bidez biltzen dugun berriz ere.

Makroakelarrea

Ortzirale gauean berri, lezean “makroakelarre” bat muntatu zen, eta 700 lagun aritu ziren goizeko 7:30ak arte. Pertsona hauetatik ia-ia denak emakumezkoak ziren, gutti batzuk ezik: Lantz-eko inauteriko pertsona batzuk (ziripot eta txatxoak), eta Ituren eta Zubietako joaldunak. Seguraski irudi ede-



Cederna Garalur Elkarteak, euskaraz lan egiten duen lehen azokara, 'Enpresarean' Feriara gonbidatua

Urriaren 2an egin da Donostian 'Enpresarean' azoka, euskaraz diharduten enpresen lehenengo azoka, helburua izanik beren produktuak edo zerbitzuak euskaraz ematen dituzten enpresen, elkartearen eta erakundearen arteko harremanak sustatzea, lan-harremanak bultzatuz, taldean lan egiteko moduak aztertuz eta negozio-bide berriak zabalduz.

Lehen ekitaldi honetan antolatzaileek Cederna Garalur Elkarteak gonbidatu dute azokara; izan ere, eskualdean diharduen garapen-agentzia izanik, gure elkarteak euskara darabil bere lan-arlo guztietan (enpresekin, toki-erakundeekin, herritarrekin). Horrez gain, euskara darabilen lurralde fisiko bat ordezkatzeko du; Nafarroako Mendialdea, hain zuzen ere.

Cederna Garalur Elkarteak stand bat paratu du azokan, ez soilik bere jardueraren eta proiektuen berri emateko, baita gure lurraldeko enpresa guztiek horretan parte hartzeko aukera izateko ere. Horretarako, posta elektronikoko bidezko informazio-kanpaina bat landu du. Horrela, Cederna Garalur Elkartearen standak Nafarroako Mendialdeko enpresen berri emateko, Nafarroako Mendialdeko enpresei 'Enpresarean' ekimenean parte hartzerako gonbidatzeko, eta beren stand propioa eduki ez eta azokan egin zitzaizketen kontaktuekiko topaleku izateko tresna bihurtu da. Mendialdeko 6 enpresek onartu zuten gonbidapena: Lacturale (Arakil); Comercial Ciganda (Lantz); Vermican (Iruña); Aralar-Urbasa Landetxeen Elkarteak eta Kaardel landetxeak. Bestalde, stand bisitatu duten enpresek interesa erakutsi dute teknologia berrien aplikazioarekin, infografiarekin, konpostaje komunitarioarekin, arkitektura leheneratu eta integratzearekin, berdinta-



Izaskun Abril eta Arantxa Arregi, "Enpresarean" Azokan.

sun-planekin eta euskaraz emandako prestakuntzarekin.

Horrez gain, Cederna Garalur Elkarteak teknikariak, programatutako 15 tailerretatik hainbatetan parte hartu zuten, besteak beste: Euskadiko Kutzak emandakoan; mahai-inguruan, non euskara (eta bestelako hizkuntz gutxituak) ustiatzea aztertu baitzen, enpresen arteko harremanak indartzeko eta sinergia berriak bilatzeko, eta bezeroak fidelizatzeke; 'K2K Emocionando', enpresen eraketan aldaketak egiten dituen aholkularitza-enpresa, enpresa horien giza gaitasuna oinarri hartuta; eta, azkenik, 'Lehiakortasunari buruzko tailerra' izenekoa, HUB Donostiak dinamizaturik, azokan izan ziren enpresen parte-hartzearekin.

'Enpresarean' azokan izan ziren Izaskun Abril eta Arantxa Arregi (Baztango eta Bidasoako eskualdeko garapen-eragileak), eta Irene Gastaminza, Cederna

Garalur Elkarteak enpresak eta enplegua arloaren koordinatzailea.

Argibide gehiago: www.enpresarean.org

HARREMANETARAKO

Irene Gastaminza, 'Enpresak eta enplegua' arloaren koordinatzailea
696 53 38 10 igastaminza@cederna.es

GARAPEN AGENTEAK

Arantxa Arregi,
606 43 13 57 bidaso@cederna.es

Izaskun Abril,
606 40 86 13 baztan@cederna.es


Elena Irigoien,
617 60 93 28 lekunberri@cederna.es

Cederna Garalur

Alkaiaga Industrialdea, Alasta 2B
Ordutegia: 09:00 / 16:00

948 62 51 22

bidaso.admon@cederna.es



SENPERE

INGURUMENA → SURF RIDER SURFZALE EKOLOGISTA TALDEKO KIDE BATZUEN LAGUNTZAREKIN

Angeluko Zaldunen hondartza garbitu dute Arretxea ikastetxeko gazteek

Herritarrek eskubideak eta bete beharrak ere baditugula erakutsi nahi izan dute arduradunek

Franck DOLOSOR

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere Arretxea kolegioak egun pasa egin du ikastetxetik kanpo eta aldi huntan ikasle eta irakasle guztiek Angelun izan dute hitz ordua. Izadia naturgunea bisitatu eta Zaldunen hondartza garbitu dute Surf Rider surfzale ekologista taldeko kide batzuen laguntzarekin. Egun osoan itsasoak hondartzetarat ekartzen dituen zikinak bildu dituzte eta ikasi dute ere zer ez den bildu behar. Eguzkia lagun, ikasleek egun xoragarria iragan dute. Magali Zubillaga Arretxea ikastetxeko zuzendaria ere biziki atxikia da egun horri parada baita denek elgarrekin egun goxoa iragaiteko. Gainerat, hondartza ikasi duten guztia kursoetan baliatuko dute gero. Monique Demange kolegioko elizkizun, gogoeta eta bitartekaritza arduradunak dio helburua dela ikasturtea hasitea gai baten inguruan. Aurten, "Ensemble droits devant" hautatu dute erran nahi baita "Elgarrekin xuxen aintzina" eta denbora berean "Eskubideak aintzina". Egun horren bitar-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Arretxea ikastetxeko ikasleak gustura Angeluko zaldunen hondartza, lana gogotik egin eta gero.

tez, Arretxeako arduradunek erakutsi nahi izan dute herritarrek eskubideak ditugula baina baita ere bete beharrak. Ikastetxetik kanpoko egun bateko egonaldiak balio du harremanak sendotzeko ikasle berrien, aspaldikoen eta irakasleen artean. Izan ere, elgar ezagutzeko eta elgarrekin biziz errexago baita gero elgarrekin lan egitea, ikaslea eta geroa giro onean prestatzea...

Jean Ithourria Gure Irratian

Senperen nork ez du ezagutzen Jean Ithourria pilotazale ibarrundarra herriko langilea, hautetsia, musikaria eta 42 urtez pilota entrenatzailea izan da, bertzeak bertze. Bere lekukotasun interesgarriak agertzen dira Senperetik Senpererat liburuan eta orain bere ahotsa

irratian eta sarean entzun daiteke. Aitzineko egun hauetan Gure Irratiko lankideek mikroa luzatu diote 'Ahapetik' saioan. Orain, Jean-en erranak entzuten ahal dira berriz nahi bezainbat euskal irratia sarearen web gunean Ahapetik saila bilatuz.

Suhiltzailea ohoratua

30 urtez senperrak ederki lagundu eta zerbitzatu ondoan, Pascal Larzabal herritarrek deliberratu du su hiltzaileen multxoan zuen tokia uztea. 1980 hasi zuen bidea aski ongi ereman du Pascalek sailez sail hupatuz pittaka pittaka "ohorezko major" kargurat ailegatu arte! Senpereko su hiltzaileek esker ona erakutsi diote errazte 30 urtez buru belarri egin duen lana adibide ederra dela gazteentzat eta oro har

edo zoin su hiltzaileentzat. Eskerrak eman dizkiote ere Bernadetteri, Pascalen andreari, eta denbora berean su hiltzaile guztien andreri. Julien Ubiria buru zutela su hiltzaileek ohorezko makila eman diote Pascal Larzabali 30 urtez eman duen laguntza haundia eskertzeko.

Dantzariak beti erne!

Zirikolatz dantza taldeak ez du proiektu eskasik. Dantza eta txistu ikastaroak berriz hasiteaz gain sei urte baino gehiagoko haurrentzat, 2013an ospatuko duten hogoita hamargarren urtemuga prestatzen hasi dira dantzariak. Taldearen ikur berria ere nahi lukete asmatu eta hortako afitxa lehiaketa apailatu dute. Urtearrilaren 7a aintzin aurkeztu behar dira kartel hauek Senpereko turis-

mo bulegoan eta irabazleak 150 euro sake-leratuko ditu!

Xilaba

Xiberua, Lapurdi eta Baxenafarroako bertsulari txapelketaren lehen kanporaketa egin zen Altzürükun. Maindi Murrúa azkaindarra nagusitu zen eta Hendaia Maddi Ane Txoperena bigarren izan zen.



ONDAREA → LEHENAGOKO IKAZKINAREN LANA IKUSIZ

Txondorrak deskubritzeko aukera izanen da urriaren 23tik 27ra

Garbalako gunean izanen da animazio hori goizeko 10etatik landa

Joana GUERENDIAIN

Urriaren 23tik urriaren 27ra txondorrak deskubritzeko aukera emana izanen da Saran. Animazio honek lehenagoko ikazkinaren lana deskubritzeko aukera ematen du, duela 100 urte egiten zen maineran ikaztegi bat eraikia izanen da. 23tik 27ra, egunero goizeko 10etatik landa, Garbalako gunean eginen da animazio hori.

Etxeko lanentzat laguntza

Herriko etxeak bulzaturik, eskola eta gero haurzaindegiko tenoreetan etxeko lanak egiteko laguntza bat muntatua izan da duela urte andana bat. Aurten ere, urritik goti zerbitzu hori martxan ezarri da.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Bertze urteetan bezala, ikazgilearen lana ikusteko modua izanen da Garbala inguruan.

7 emazte 2 eta 3ko taldeetan antolatutak, bat frantsesa egiteko eta bertzea euskara, etortzen dira astelehen, astearte eta ostegun arratsaldetan 5 etatik goiti. Zerbitzu hori bakarrik haurzaindegian diren haurreri idekia da.

Antifaxista festival

Antifaxista festivalaren 2012ko edizioa heldu den urriaren 20an iraganen da Saran, kiroldegian. Kontzertuak gauko 21:00etan hasiko dira, ondoko taldeak entzuteko aukera izanen da: The Offenders (ska-italia), Bastards on Parade (Punk-folk from Galizia), Streets of Rage (Hardcore, metal, punk), Antifun Krieg (hardcore, punk) eta Euskal Herriatik etorritako Esteka taldea. Sar-tzea 10 eurotan izanen

da, festibala hori IpEH antifaxista elkarteak antolatzen du. Informazio gehiagorentzat: ipehan-tifaxista.blogspot.com.

Kirol emaitzak

Gure kirolariek ongi hasi dute sasoina! Izan esku baloiko neskek edo errugbiko mutikoen, biek garaipena ezagutu dute. Irailaren 29an Urtxintxak Frantziako koparen matxa bat jo-

katu dute Saran St Paul les Daxeko taldearen kontra eta irabazi egin dute 23-19. Basurdeak, irailaren 30ean aritu dira Saran Azkaineren kontra eta irabazte atara dira 9-6 lehenareztat eta erreserbarentzat 36-35. 2. asteburua aldiz txarragoa izan da. Eskubaloiko neskek Lucq de Bearn-en kontra galdu egin dute 15-14. Basurdeak, lehen ekipak Mendikotaren kontra galdu du 27-18, aldiz erreserbak garaipen polita ezagutu du 55-3.

Sarako oihana bisitatuz

Mundu osoko espezialistek bisitatu zuten Sarako oihana urriaren 4an. Bordelen irailaren 29tik urriaren 2ra egin zen OIS elkarteak (Oak International Society) antolatutako nazioarteko konferentzia eta horren ondotik etorri ziren Sarako oihana ikustera 51 lagun. XVI. mendetik honat oihanak izan duen garapenaren berri jaso zuten.

HER, DIBO
ETREBO
EDXNTEGIX
CAFÉ DE LA MAIRIE
T: 0559542519
Maïxan eta Véronique
SARA

Egin zaitez
ttipi-ttapa-ren
harpidedun
(0034) 948 63 54 58

elika
Dietetika... elikadura
ttipi bartela
%5eko
DESKONTUA
kontsultan

MONTXO OSTATVA
TABAKO-BENDA
Plater kombinatuak | Ogitortekoak | Pintxoak | Menuak enkarguz
Egunero irekia 09:00etatik 02:30era - Donostianetik 2 km. tona
ANZAN-BORDA - URDAZUBI | 948 599 039

EZKONTZAK

Aloña Elizalde Mariezkurrena eta **Xabier Bazterrika Zelaieta**, Doneztebekoa eta Iruritaikoa, abuztuaren 25ean Iruritan.

Mikel Etxeberria Loiarte eta **Oihana Irastorza Gonzalez**, Goizueta eta Oiarzungoa, irailaren 29an, Goizuetan.

Mikel Baraibar eta **Ana Goñi**, Areso eta Berrobikoa, urriaren 6an.



Aurreko denboraldiko kamisetak %30

Zatigurutze, 1 DONEZTEBE • 948 450 252

SORTZEAK

Aimar Opoka Iriarte, Nartartekoa, urriaren 6an.

Jone Martinez Iribarren, Doneztebekoa, irailaren 24an.

Izaro Ezkurra Ezkurra, Aurtizkoa, irailaren 27an.

Arrate Pikabea Aldako, Lesakakoa, urriaren 3an.

Maria Altzugarai Irigoien, Lesakakoa, urriaren 4an.

Iban Barrenetxe, Sarakoa, irailaren 17an.

Aiert Iriarte Bengotxea, Etxalarkoa, irailaren 25ean.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatuoa

ttipi-ttapa

Finantzatzen. 12 | EITZOLARRI | 948 655 458

HERIOTZAK

Jean Marc Aspirot, Sarakoa, urriaren 1ean, 66 urte.

Jesusa Saharrea, Sarakoa, urriaren 2an, 88 urte.

Jose Mari Onsalo Arraiago, Aresokoa, irailaren 16an, 86 urte.

Jesus Mutuberria Erro, Zubietakoa, irailaren 28an, 90 urte.

Juana Irazoki Matxikote, Berakoa, urriaren 1ean, 96 urte.

Isabel Ruiz Astiz, Doneztebekoa, urriaren 2an, 83 urte.

Sebastian Bertiz Otxandorena, Beintza-Labaiengoa, urriaren 4an, 86 urte.

Jose Agustin Larrañaga Telletxea, Iruritaikoa, urriaren 5ean, 94 urte.

Anttoni Lazkano Ubiria, Lesakakoa, urriaren 2an, 89 urte.

Jose Javier Sarratea Azkarraga, Elizondokoa, urriaren 8an, 39 urte.

Matias Iantzi Madariaga, Lesakan, urriaren 9an, 92 urte.

Rosalía Arraztoa Arrupea, Azpilkue-takoa, urriaren 9an, 95 urte.

Martin Juanenea Aizega, Saldiasakoa, urriaren 9an, 91 urte.



Anastasia ERRANDONEA ERRANDONEA

Beran, 2007ko urriaren 16an

V. URTEURRENA

Seguru urte aunitz pasako direla eta hau bosgarrena bertzerik ez dela izanena. Baina urteak kontatu ahal izateak berak zurekin ahazten ez garela adierazten du.

ZURE FAMILIA



Antonio SAGASTIBELTZA ZABALETA

Leitza, 2011ko urriaren 27an

I. URTEMUGA

Dagoeneko urte bat bada, urrutira joan ziniela Ematen ziniun berotasuna, bihurtu zaigu epela Zuk utzitako hutsune latza, ez dugu beteko bela Birlobatxo bat jaino berri da, desio ziniun bezela Berai begira amesten dugu gure ondoan zaudela.

ETXEKO FAMILIA

Bere oroimenezko meza, Leitzaiko elizan egunen da urriaren 28an, 11:00etan



Lino INDAKOTXEA ARIZTEGI

Zubietan, 2009ko urriaren 20an

III. URTEURRENA

Udazkeneko hostoen antzera joan zinen eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko, baina bizitzen garen artean, ez zaitugu ahaztuko.

ASKO MAITE ZAITUGU

IZASKUN, JONE, LANDER ETA FAMILIA



ttipi txartelarekin

beti irabazten da!

deskontuak + zozketak + aldirikara musu truk

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

571. ALEKO IRABAZLEAK

- * IBAIZABAL 2 LIBURU
A zer gauzasal + Sorgin bit karagari polita
Estibxu Mikelperitzena | ELIZONDO
- * LANKU LIBURUA + DVD + CD
Bortxu Liburua eta DVDa + MTC Tdrria CD
Sokoro Almandoz Mikelena | BERA
- * ONINART KAMISETA
Neli Aleman Santesteban | DONEZTEBE
- * KATXIPORRETA DVD
Ongi etoni Papu eta Lore
Feliotas Meoki Artzia | LEKAROZ
- * URTXINTXA ESKOLA
PUNPALAPLAN CD + DVD
Mirentxu Goienetxe | AMAIUR
- * AQUARIUM 2 SARRERA
M^a Dolores Saiz Muñiz | ELIZONDO

zozetak



2 LIBURU
Elkar argitaletxea
www.elkarlanean.com



KAMISETA BAT
Onddo ta punto
www.onddotapunto.com

deskontuak



ELIZONDO
%10 batera eta amortiguadoretan




DONEZTEBE | ELIZONDO
%10, 30etik gorako gastuan




DONEZTEBE %10eko deskontua hau-
rendako gaitzeri eta baruko arropetan



DONEZTEBE | ELIZONDO
%10 produktuetan



OIZ
%10eko deskontua



LESAKA
%10 eguzkitako betazurkoetan



AQUARIUM 2 SARRERA
Donostiako Aquarium-a
www.aquariumss.com



LANKU DVD + CD
Lanku argitaletxea
www.lanku.com



2 LIBURU: PIRITX + PORROT
Pirritx, Porrotx eta Marimotots
www.katziporreta.com



PUNPALAPLAN CD + DVD
Urtxinba eskola
www.urtxinba.org

ttipi-ttapa

Anduetzeta 12, 31760 ETXALAR
Tel. 948 635 458 Fax 948 635 457
info@ttipi.net www.ttipi.net

HERRI KIROLAK → HARRIJASOTZEA

Bosgarren urtez segidan Nafarroako txapela jantzi du Unai Bertiz sunbildarrak

Urrutia bigarren eta Ariztegi hirugarren izan ziren irailaren 29an Igantzin

TTIPI-TTAPA | IGANTZI

Nafarroako harrijasotze txapelketa jokatu zen irailaren 29an, San Migel egunez Igantzin. Bortz lehiakide izan ziren, inoiz baino gehiago, baina Unai Bertiz sunbildarrak ez zuen ezustekorako tarterik utzi. Hiru harri erabili zituzten harrijasotzaileek bina minutuko txande-

tan eta hiruetan nagusi izan zen 27 urteko sunbildarra. Bosgarren txapela jantzi zuen Bertizek, 2008tik bera baita nagusi Nafarroan. 537 kilo terdiko aldea aterazio azpitxapeldun izan zen Josetxo Urrutia leitzarrari.

125 kiloko harri zilindrikoarekin hasi zen sailkapena argitzen. Lehenbiziko harri horrekin 22 jasoaldi egin zituen Unai Bertizek (2.750 kilo). Josetxo Urrutia leitzarrak 21 jasoaldi egin zituen (2.625 kilo). Xabier Ariztegi Santxin etxalartarrak 19 jasoaldi egin



ARGAZKIA: AIITOR AROTZENA

Josetxo Urrutia, Unai Bertiz eta Xabier Ariztegi Santxin Igantzin, sari banaketaren ondotik.

zituen (2.375 kilo). Txapelketan lehen aldiz parte hartzen zuen eta lehiakide gazteena zen Aitor Oiarbide, 19 urteko Etxarri-Aranaztarrak 16 jasoaldi egin zituen (2.000 kilo) eta betaranoenak, Aldazko Xabier Igoak 15 jasoaldi egin zituen (1.775 kilo).

Ondotik, 112 kilo terdiko kubikoarekin aritu ziren bortz harrijasotzaileak eta hemen ere Bertiz izan zen onena, 14 jasoaldirekin (1.575 kilo). Urrutiak eta Santxinek hamahiruna jasoaldi egin zituzten (1.462 ki-

lo terdi), Oiarbidek 12 jasoaldi (1.350 kilo) eta Igoak 10 jasoaldi (1.125 kilo).

Hirugarren harriari, 100 kiloko bolari ekite-rakoan nahiko garbi zeuden kontuak, baina bere lana borobildu egin zuen Bertizek, 18 jasoaldi eginez (1.800 kilo). Urrutiak eta Santxinek hamabosna egin zituzten (1.500 kilo) eta Oiarbidek eta Igoak hamabina (1.200 kilo).

Gauzak honela, Bertizek jantzi zuen txapela, 6.125 kilo jasota. Josetxo Urrutia bigarren

izan zen, 5.587 kilo terdirekin eta Xabier Ariztegi Santxin hirugarren, 5.337 kilo terdirekin. Lourdes Ibarluzea Igantziko alkatearen eta Imanol Retegi kirol zinegotziaren eskutik jaso zituzten sariak. Aitor Oiarbide izan zen laugarrena 4.550 kilorekin eta Xabier Igoa bosgarren, 4.200 kilorekin.

Harrijasotze txapelketa ofizialarekin batera, Igantziko gazteek ohiko herri kirol saio ikusgarria eskaini zuten, taldeka proba konbinatu ezberdinak eginez.

HERRI KIROLAK → AIZKORA

Lehen mailan aritzeko txartela lortu du Aurtizko Ander Erasunek

Azpitxapeldun izan zen 2. mailako txapelketan

TTIPI-TTAPA

Jon Irazu gipuzkoarra nagusitu zen irailaren 30ean Aizarnazabalen jokatuak Euskadiko bigarren mailako aiz-

kolari txapelketaren finalean. Iaz hirugarren Mailako Euskadiko txapela jantzi zuen eta urte baten buruan bigarren mailakoa. Ander Erasun izan zen txapeldunordea. Aurtiztarrak 48 segundu gehiago behar izan zituen eta biak Euskadiko Maila Nagusian ariko dira heldu den sasoiaren.



ARGAZKIA: KOLDO ALDUNTZIN

Ander Erasun lanean Aizarnazabalko finalean. Lehen mailan aritzeko txartela lortu zuen.

Sei aizkolari lehiatu ziren Aizarnazabalen, bakoitzak seina pagoenbor ebaki zituen: bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko (72 ontzako).

Aipatzekoa da Erasunek bigarren erdian egin-

dako lana. Izan ere, aurtiztarrak azkenekoa zen lan erdietan, Irazutik kasik minutu terdira. Azkenean bigarren izan zen 3 segundurengatik.

Jon Irazu izan zen txapeldun (19:07). Ander Erasun bigarren (19:55)

eta Zumarragako Xabier Zaldua hirugarren (19:58). Mikel Larrañaga azpeitiarra laugarren izan zen (20:23), Ugaitz Murgertza mutrikuarra bosgarren (21:23) eta Oihan Larretxea beratarra seiugarren (22:20).

ATLETISMOA → XXXII. EDIZIOA ANTOLATU DU GURE TXOKOAK

Lizuniagako Igoera urriaren 27an egingen da Beran

16'03"ko marka hobetzen duenak 300 euroko saria izanen du

TTIPI-TTAPA | BERA

Lizuniagako Igoera-ren 32. edizioa jokatu da urriaren 27an, 17:00etatik aitzinera. Iaz bezala, denborak txiparekin hartuko dira eta izen emateak, lamotenean egun berean ez ezik Internetez egiteko aukerabada, *kirolprobak.com* webgunean. Gure Txokoako bazkideek 3 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez dire-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

4,9 kilometroko ibilbidea egingen dute korrikalariak, %6,6ko banaz bertzeko maldarekin.

nek, 5 euro. 14 urtetik goitikoei zuzendutako lasterketa da. Aitzinetik, 16:00etan, haurren krosa egingen da. Gainerakoan, betiko ibilbidea

izanen dute korrikalariak, 4,9 kilometrokoa Eztegara eta Lizuniagako kaxkoaren artean, %6,6ko banaz bertzeko maldarekin. 16 minutu

eta 3 segunduko marka hobetzen duenarentzat 300 euroko saria izanen da. Lasterketa ondoren, luntxa eskainiko da eta zozketak egingen dira.

AIZKORA

Nazabalek berreskuratu du Nafarroako txapel handia

TTIPI-TTAPA

Iaz ez zuen parte hartzerik izan lesio baten ondorioz, baina aurtten berriz ere Nafarroako txapel nagusia jantzi zuen Floren Nazabal aizkolariak Etxarri-Aranatzen urriaren 7an. 30 minutu eta 39 segundu behar izan zituen lau kanaerdiko, bi oinbiko eta 60 ontzako lau enbor mozteko. Bigarren Jon Rekondo leitzarria izan zen (35:58), hirugarren Ander Erasun aurtiztarra (36:36) eta laugarren Antonio Senosiaia (39:39). Donato Larretxeak proba utzi behar izan zuen, gerriko minaren ondorioz.

PILOTA → ERREMONTEA

Promoio txapelketan ari dira eskualdeko hainbat erremontelari gazte

Urriaren 20 eta 27an finalerdiak eta azaroaren 3an final handia jokatu dira

TTIPI-TTAPA

Oriamendi 2010 enpresak pilotari gazteendako antolatutako promozio txapelketa urriaren 4an abiatu zen Ga-

larretan. Hasierako partida horretan, Ezkurra II eta Patxi Olazar doneztebarrek, Matxin III eta Labakari irabazi zieten eta honela final laurdenetarako txartela lortu zuten, bertze zazpi bikoterekin lehiatzeko.

Final laurdenetako lehen bi partidak urriaren 6an jokatu zituzten Galarretan. Lehenik, Oñatz eta Aritz Zubiri goizue-



ARGAZKIA: MAIALEN ANDRES (ORIAMENDI 2010)

Promoio txapelketan parte hartzen ari direnak. Patxi Olazar doneztebarra falta da.

tarrak 32 eta 35 galdu zuten Otaegi eta Barrenetxea IV.aren kontra ariko dira eta bigarren partidatan, Etxeberria IV eta Andoni Saldias oiztarrak 32 eta 35 galdu zuten Endika saldiastarra eta Aizpuru III.aren kontra. Beraz, lehenbiziko finalerdian Otaegi eta Barrenetxea IV, Endika era Aizpuru III.aren kontra

ariko dira.

Matxin VI eta Agirrezabalak iaz lortutako titularen defentsan aritzeakoak ziren Etxabe II eta Zubizarretaren kontra, urriaren 12an, Pilarka egunean. Egun berean, Urrutia II saldiastarra eta Aizpuru II, lehen partidako irabazleen kontra, Ezkurra II eta Olazarren kontra aritzeakoak zi-

ren. Irabazleek jokatu dute bigarren finalerdia.

Finalerdiak urriaren 20an eta 27an jokatu dira eta final handia azaroaren 3an. Bikoteak jorekatuak dira eta uda honetan profesionaletan debuta egin duten Ezkurra II, Otaegi, Labaka eta Aizpuru III.ak lehen aldiz izan dute txapelketa batean aritzeako aukera.

urriak 18 - azaroak 1

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58

Feriak



ELIZONDO | 2012.10.26-27

Udazkeneko Feriak ere azienda dotoreak bilduko ditu

Gure inguruko betiko udazkeneko ferien artean Elizondokoa izaten da lehenbizikoa. Azienda ederrak ikusteaz gain, *feriatzeko* aukera izanen da.

Kontzertuak



SARA | 2012.10.20

Antifaxista Festivaleko kontzertuak kiroldegian

Argazkiko The Offenders italiarrekin batera, Bastards on Parade, Streets of Rage, Antifun Krieg eta Esteka ariko dira. Sartzea 10 euro gostako da.

Ospakizunak



ARIZKUN | 2012.10.20

Kirikoketa bestaren hamahirugarren edizioa

Jo ala Jo taldeak hamahirugarrenez antolatu du sagar jotzearekin zerikusia duen ospakizuna, Gamioxarreko dolarearen inguruan.

no elkartean 17:00etan Sakana (Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Joxema Leitza) eta Lesakaren artean (Xabier Silveira, Ioar Tainta, Josu Sanjurjo). Aitzinetik bazkaria (10 euro).

Ikastaroak

ELIZONDO

Birziklatuz plastika ikastaroa haurrentzako

Urriaren 30ean hasiko da 5 eta 12 urte arteko aurrentzako Birziklatuz plastika ikastaroa Arzkunenean. Astear-tetan, 17:00etatik 18:30era eta 18:30etik 20:00etara. Matrikula 30 euro. Izen ematea Arzkunenean egin behar da. Irakasleak Amaia Zinkunegi eta Ines Gereka izanen dira.

Hitzaldiak

IRURITA

Herri baten historia, Iruritako etxeak

Urriaren 19an Dorrea Elkarrekin antolatutako Herri baten historia; Iruritako etxeak konferentzia zikloaren barnean, (1646-1850, *Barri-detasunaren blokeoa eta baserrien sorkuntza* solasaldia eskainiko du Jose M^a Imizkoz historialariak 17:30ean Iruritako Jauregian.

ETXALAR

Andres Iñigo euskaltzaina solasean

Urriaren 25ean *Euskara: landu eta indartu beharreko hizkuntza* solasaldia eskainiko du Andres Iñigo euskaltzainak 19:30ean Kultur Etxean.

Ospakizunak

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 28an antolatu du Gure Txokoa elkar-

Erakusketak

URDAZUBI

Monasterioko kalostrepean

Abenduaren 31 arte ikusgai izanen da monasterioko kalostrepean *Euskal Herriko margogintzaren 50 urteak* erakusketa.

OIEREGI

Diana Iniestaren lanak Bertzen ikusgai

Urriaren 31 arte Diana Iniestaren margo eta marrazki erakusketa Bertizko Parkean, *Principios* izenburupean. 10:30-13:30 eta 16:00-17:00.

ELIZONDO

Ana Ananda eta Itziar Muñozen margolanak

Urriaren 5etik 25era Ana Ananda eta Itziar Muñozen margolanak ikusgai izanen dira Arzkunenean astegunez 18:00- 21:00 eta jaiegunetan 12:00-14:00.

Kontzertuak

ELIZONDO

Pottoka&Eskortz eta Iñigo Belzunegi

Urriaren 28an kantal-

dia eskainiko dute Pottoka & Eskortz eta Iñigo Belzunegik Arzkunenean 19:00etatik aitzinera

ERRATZU

Zakillers taldea Zubipuntan

Urriaren 19an Zakillers taldeak kontzertua eskainiko du 23:00etan Zubipunta ostatuan.

SARA

Antifaxista Festival

Urriaren 20an iraganen da kiroldegian

21:00etatik aitzinera. The Offenders, Bastards on Parade, Streets of Rage, Antifun Krieg eta Esteka taldeak ariko dira. Sartzea: 10 euro. PIEH Antifaxista elkarteak antolatuta.

Feriak

ELIZONDO

Udazkeneko Feria

Urriaren 26 eta 27an Udazkeneko Feriak ospatuko dituzte Elizondon. Xehetasunak 44. orrian.

Antzerkiak

IRURITA

Helduendako antzeslana

Urriaren 21ean *Xentimorik gabe* helduendako antzerkia euskaraz ikusteko aukera izanen da 19:00etan Dámaso Zabalza Bilgunean.

Bertsoak

LESAKA

Lesaka vs Sakana desafioa

Urriaren 20an bertso desafioa ginen da Arra-

PROPOSAMENA

BERA

Lurraren Eguna

Urriaren 28an ospatuko da Lurraren Eguna 26. edizioa. Beti bezala, baserrietako barazki eta bertze produktuen erakusketa, 90 bat eskulangileren lanak, gazta eta sagardo lehiaketak, musika, dantzariak eta ekitaldi ugari izanen dira Bera-ko karriketan. Bezperan ere izanen da zer ikusia: Lizuniagako igoera, argazki erakusketa eta barazkiopil lehiaketa, erraterako.



teak Lurraren Eguna. Xehetasunak 15. orri-an.

ARIZKUN

Kirikoketa Eguna

Urriaren 20an antolatu du Jo ala Jo taldeak.

ETXALAR

Usategietako Igandea

Urriaren 21ean ospatuko da. Xehetasunak 17. orri-an.

ARANTZA

Baserritarren Eguna

Azaroaren 1ean ospatuko da. Xehetasunak 18. orri-an.

Zinema

LEITZA

Zine denboraldia

Urriaren 26 eta 28an *Intocable* filma eskainiko da zinema, zine denboraldia hasteko. Ostiraletan 22:30ean eta igandetan 19:30ean.

Lehiaketak

LESAKA

Beti Gazte elkartearen argazki lehiaketa

Urriaren 31n bukatuko da *Beti Gazte* elkartearen argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea.

SENPERE

Arranoa elkartearen argazki lehiaketa

Urriaren 31n bukatuko da *Arranoa* elkarteak eta *Herriko Etxeak* apailatu argazki zoi-ingeziagoka. Gaia: *Bidaia*. Lehenbiziko saria 500 eurokoa da.

Mendi ateraldiak

ZUGARRAMURDI

Atxuria mendi taldea

Urriaren 28an Kanbo-Urdazubi ateraldia egingen du *Atxuria mendi* taldeak.

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Ezekiel nora ezan

JASONE OSORO

Elkar, 2012

Ezekielek 15 urte ditu, lagunarte jator bat, neska-lagun moduko bat... Bizitza zoriontsu hori aldatu egingo da, ordea, inoiz ikusi ez duen aita bat-batean agertzen denean: ezagutu nahi luke, batetik, baina baita alde egin izana aurpegiratu ere. Horrez gain, beste hainbat arazo ditu mutilak: arrebarekin eta amarekin dituen eztabaidak, laguneko gorabeherak, gustuko bi neskaren artean sentitzen dituen zalantzak...

Musika




Begiak lekuko

MUGALDEKOAK

Gaztelupeko Hotsak, 2012

Berako taldearen oraingo proposamenak *Begiak lekuko* izena du eta, nolabait, munduko testu eta doinu antologia txiki bat eskaintzen du. Aurreko etaparen aldean, honako hau musikalagoa da, estilistikoki anitzagoa, instrumentazioaren aldetik aberats eta joriagoa (ukelelea, txalaparta, kontrabaxua, xilofonia, perkusioak edota akordeoia erantsi dizkiote gitarrek osatutako oinarriari) eta zuzenekoan dramatizatuagoa dela erran daiteke, literaturak oraindik presentzia nabarmena baldin badu ere. Aldaketarik handiena, kantuen jatorrian aurkituko dugu. Izan ere, lehen disko hartako abestiak taldeak berak Edu Zelaietaren hitzen gainean sortutakoak ziren, eta bigarren honetan bertzeen abestiak moldatzera jo dute mugaldekoei. Inoiz baino gehiago, poema eta musika kontrabandistak ditugu *Mugaldekoak* disko eder honetan.

Internet



Euskaraz etiketatzearen aldeko manifestua

EUSKARAZETIKETATU.COM

Euskal Herrian ekoiztu eta banatzen diren produktuak euskaraz etiketatzearen aldeko manifestua kaleratu dute. Irail hasieran, Euskal Herria Esnea kooperatibari euskaraz hutsez etiketatzeagatik Eusko Jaurlaritzak prozedura ireki zionean hasi zen afera. Euskaraz hutsez etiketatzen dutenen aurka isuna eta debekua iragarri zituenean. Kaleratu berri den manifestuarekin Euskal Herrian banatzen diren produktuak euskaraz hutsez etiketatzearen esku-bidea aldarrikatu nahi da. Sinatzaileek kezka ikusten dute etiketatzen ematen den informazioa erabat erdalduna eta arrotza izatea. Horrela, Euskal Herrian banatzen diren produktuak, gutxienez euskaraz etiketatu beharko lirartekeela aldarrikatzen dute. Euskal Herria Esnearen aurka irekitako prozedura gibeleratuta botatzea eskatzen dute. Manifestua irakurri eta atxikimendua eman nahi dionak webgunean du horretarako aukera.

Nire aukera



Irantzu ALUSTIZA
Aresoko gaztea

«Inguruko lekuak ezagutzeko ohitura dut txikitatik»

Areso eta Donostia artean, joan-etorrian, pasatzen du astea, Haur Hezkuntzako gradua ikasten ari baita Gipuzkoako hiriburuan. Denbora librean «mendira joan eta lagunekin egotea du gustukoen». Oporrak hartzen ditue-nean berriz, gauza aske egiteko asmoa bai baina azkenean erdiak egiten dituela aitortzen du «gustuko ditudan gauzak egiteko aprobetxatu nahi izaten dut denbora, baina juerga egiten dugunez, ondoren lotan pasatzen dugu eguna». Bidaiatzea atsegin du «nahi baino gutxiago egiten dut baina gustoko dut oso bidaiatzea, inguruko lekuak ezagutzeko ohitura dut txikitatik». Zinerako ez du afizio handiegirik, baina irakurzaletasuna bai, «geroz eta gehiago, baina, eduki beharko nukeena baino gutxiago» esan digu. Artzain Txakur Txapelketan aritzen da bere aita eta Antonio Alustizaren bidea jarraitu behar ote duen galdetuta ezetz dio barre artean «orain arte bezala nik kanpotik begira segituko dut».

ETXEBIZITZAK

salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

ORONOZ-MUGAIRI. 2 bizitza salgai, moblez-tua. Berogailua, igogailua, trastelekua eta bajerarekin. Prezio onean. ☎948 585036.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagarik baserriak, bordak eta lurra behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Etxebizitza salgai, 330m², 4.000m²ko partzela. Paregabeko tokian kokaturik. Argiak izan du lehentasuna etxearen diseinuan, material modernoak. Beraz sentitze-ko eta bizitzeko etxea. ☎610 508206.

DONEZTEBE. Pisua trastelekuarekin salgai. Kanpora ematen du eta bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela dauzka. Etxeak igogailua dauka. Erabat hornitua, altzari eta kalefakzioarekin. Salmenta prezioa: 152.000 euro. ☎619 221318.

LESAKA. Etxea salgai, prezio onean. ☎609 477277.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

ELIZONDO. Pisua erren-

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **8€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **10€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

tan emateko, berritua (es-trenatzekoa), bizitzera sartzeko prest. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta bi balkoi (bista politik eta arras eguzkitsua). ☎649 213382.

LESAKA. Guztiz moblez-tatua eta ekipatua dagoen duplexa errentan emateko, 1 edo 2 laguntzako aproposa. Zonalde polita eta lasaia. ☎658 943702.

LEGASA. Errentan emateko edo salgai. Berritua eta mobleztatua. ☎677 089046

LESAKA. Erdi-erdian pisua errentan ematen da. 3 egongela, trasteroa, despentsa, climalit leihoak, kalefakzioa gasarekin, argitsua eta lasaia. ☎670 754034.

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Bi logela, sukaldea, bainugela eta egongela dauzka.

Kanpora ematen du, kalefakzioa eta igogailuarekin. Erabat prestatua bizitzeko. Prezioa: 400 euro gehi gastuak. ☎696 166566.

ELIZONDO. Pisu mobleztatua errentan emateko. Santiago karrika. ☎636 81 2766.

ETXEBIZITZAK
errentan hartzeko

BERA. Bikote batek Beran etxea edo pisua errentan hartuko luke. ☎687 609684.

BERA, LESAKA eta INGURUAN. 2 neska arduratsuk eta garbik pisua errentan hartu nahi dute, hilabetean 400 euroko errenta ordaintzeko prest. ☎663 420685.

LEZO. Pabilioia errentan emateko, 400 m² eta fosa-ekin ☎600 901058.

BERA. Kanttonberri karrikan pisua errentan

emateko. Hiru logela, kalefakzioa, igogailua eta mobleztatua. ☎699 646257

DONEZTEBE. 2 logelako bizitza berritua salgai. 15m²ko trastelekuarekin. 112.000 euro. Ez gelditu ikusi gabe, ez duzu deus galtzen! ☎630 160353.

ETXEBIZITZAK
pisua konpartitzeko

30 urteko neska, pisua konpartitzeko beste neska bat topatu nahiko luke. ☎662 585965.

ZERBITZUAK
denetarik

Afrikako mutil batek, Lesakan bizi denak, **dantza klase desberdinak** eman nahi ditu: afrikar dantza, hip-hop, saltsa... ☎620 575749/ 660 219447.

Frantseseko klaseak eskaintzen dira Bera eta Donezteben. Astearte, asteazken eta ortzirale-tan. Irakasleak lizentziatuak eta natiboak dira. ☎948 305430/ ☎948 146677.

LANA
eskariak

Zonaldeko mutila pintatze lanetan, baserriko lanetan, mantenimendu lanetan (lore zaintza, erai-kuntza...), egurra egiten... ariko litzateke. Lanean berehala hasteko prest. ☎636 599336.

Emakumezko bat Elizondo edo zonaldean garbiketarako egiten, plan-txalantetan, fregatzen, fregaderan egon edo pertsonak zaintzen ariko litzateke. ☎603 640776.

Zonaldean bizi den **emakumea** interna moduan lan egiteko prest dago. Elizondon externa edo interna moduan ere lan egiteko prest dago. ☎673 533472.

Emakume euskalduna etxeko lanak egiten edo haurrak zaintzen ariko litzateke. ☎948 630914/ 678 903294.

Emakumezkoa, kotxearekin, etxeko lanak egiten eta pertsonak zaintzen ariko litzateke. Disponibilitatea goizeko 10etatik aurrera. ☎699 651477.

Neska gazte euskalduna haurrak zaintzeko litzateke Lesakan. ☎620 421380.

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(irailaren 21etik 28ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 39,00 € (=)

Zerri gizena
1,490 € kiloak. (=)

Zerramak:
0,910€ Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,23
1.koa 3,84
2.koa 3,68

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,39
1.koa 4,00
2.koa 3,86

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 130,00
idixkoak 210,00

Aretze nabarrak:
urruxak 130,00
idixkoak 165,00

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,97/3,07
Zaldi-behorrak: 1,81/2,01
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,60/8,70
8-10 kilokoak: 6,60/7,00

LANA
eskaintzak

NAFARROAN, ordezka-ri independenteak behar dira: zure nagusia izan, etxetik lan egiteko, enpresa independente bat ezarri etxean. Aurreko esperientzia ez da beharrezkoa. ☎626 981768.

SARA-ZUGARRAMURDI. Urtxola jatetxean sukaldari laguntzaile bat behar da. Hobe esperientziarekin. ☎(0033) 559 542131.

ROSA BELZUNSKI
PSIKOANALISTA
Kontsultarako eskatu orduak
☎ 948 272011 (RUINA)
☎ 948 580975
Jaime Urutia 42-2.D - ELIZONDO

IBARDIN. Beola Bentan egun erdiz lan egiteko zerbitzaria eta dendan lan egiteko bertze pertsona bat behar dira. Frantse- sa dakitenak. ☎948 630709.

IBARDIN. Frantsesa dakien neska bat behar da Ibardin inguruan publizitate banaketan aritzeko. ☎948 631658/ 650 981950.

SUNBILLA. Aurrerakada S.C.I.k (lan bertikalak) lan poltsa ireki du etorkizuneko obretan lan egiteko. Bidali curriculuma: contacto@aurrerakada.com-era edo postaz Donibane kalea 18, 31791 Sunbilla helbidera.

ANIMALIAK
oparitzeko

2 zakurkume eme oparitzeko. ☎ 690 388263.



MOTORRAK
salgai

Golf VR6 autoa salgai. Extra guztiak ditu. 1994 urtekoa. 2.000 eurotan. ☎ 679 982109.

Citroen Saxo 1.1 gasolina salgai. 1997koa, 5 ate, 140.000 km. Merke! ☎690 108968.

Nissan Almera Tino 1.8 monobolumena salgai. 5 atekoa. Gasolina. 2005koa. 65.000 km. Ongi zaindua. ☎628 572273.

Toyota Runner 3.0 salgai, oso egoera onean. 175.000 km. Altueran altxatua, leiho tintatuak, kubiarta berriekin dena homologatua eta ITV eguneratua. ☎653 709496.



Golf VGTI salgai. 200 cv. 2007koa. Beltza. Egoera onean. ☎606 799 875.




DENETARIK
salerosketak

ORONOZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritzta. Etxera eramaten da. ☎676 242520.



Eusebio Arizaga markako **eskopeta** paralela raiatua eta motza salgai. Kanoiak 60 zentimetroko luzera, kanoi bat raiatua eta bertzea zilindrikoa. Kulata pistolet-erdia eta bi gatilo. Oilagorretarako aproposa, bai-

ta basurdean resakatzen ibiltzeko, raiatua ongi doa breneke balekin. ☎686 730516.



ELIZONDO. Egoera arras onean dauden egurrezko mueblea eta ispi-lua salgai. ☎670 779682



DENETARIK
galdu/aurkituak

LESAKA. Antoiun, farmaziaren parean, urre zurri eta horiko aliantza aurkitu dugu. Eratzunean "Estitxu 28-06-2008" grabatua dago. ☎948 637004.

GANIX
BERRA
☎ 948 63 06 69
BERRA

EZ GELDITU PNEUMATIKO ZAHARREKIN, GUK EROSIKO DIZKIZUGU!

10€² GURPILENGATIK* 20€⁴ GURPILENGATIK*

Galnera: -%50 bigarren pneumatiko berria + montajea eta ekilibratua doan*

* Eskaintza baliozkoa 2012-12-31 arte. Marka hauekin balio du: Goodyear- Michelin Dunlop- Continental- Pirelli- Bridgestone

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE!

Talleres SANTESTEBAN, S.A.
Leitzako errep. 80 | Donostia | T. 948 450 282
F. 948 450 857 | donostia@tred.renault.es

ARANTZA
Zurgindegia.....

- Klase gutietako zurgin lanak
- Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

José Miguel Izarduen
Tel. 948 634 068 - 647 810 144
Gurutzeta - ARANTZA

aurrerakada
S.C.I.k (lan bertikalak) lan poltsa ireki du etorkizuneko obretan lan egiteko. Bidali curriculuma: contacto@aurrerakada.com edo Donibane, 18 31791 Sunbilla helbidera

BERAKOUDALA
ASOCIACIÓN DE BERRA

TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKORDIOAK

Berako Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak, 2012ko irailaren 27an, 7. Sektoreko UEFko ondoko espedienteak onetsi ditu hasiera batez:

- Borondatezko Birzaitetza Proiektua
- Hirigintza Hitzarmena
- Urbanizazio Proiektua

Bera, 2012.10.08
Alkatea,
M^o Sol M. Taberna Irtzoki

urriko zk. saritua 6.074

Bi lagunendako bazkari bat Etxalarko Elutsa jatetxean

Sarituen hilaren 31 baino lehen deitu behar da Bortzaitetako Hiri Hondakinaren Mankomunitatera

948 63 52 54

inprenta lanak egiten ditugu
ideiatik hasi eta etxean izan arte

ttipi-ttapa

1.000 aldiz → **92€**

8.000 aldiz → **140€**

1.000 aldiz → **88€**

1.000 aldiz → **107€**

948 63 54 58

urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,36€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekia; 4) www.ttipi.net bitartez



ASIER MUTUBERRIA PAGOLA arantzarrak 3 urte beteko ditu urriaren 20an. Zorionak eta ongi ongi pasa eguna. Auniz urtez potoko!!!



HEGOA eta AMPAROK urteak beteko dituzte urriaren 22 eta 30ean. Auniz urtez! Berexiki bilobaren partez. Ongi pasa! mila muxu



Lesakako **OIER ARRUABARRENA IRURZUNEK** 2 urte beteko ditu urriaren 26an. Zorionak eta muxu bat familiaren partez! Gora San Piri!



ARITZ JUANENEA eta AROA BERTIZEK urteak beteko dituzte urriaren 2 eta 3an. Zorionak osaba-lobei, Sunbilla eta Saldisko familien partetik. Ongi pasatu zuen urtebetetze egunak! Muxu bana.



HELENE ALZURI LUJANBIO arantzarrak 3 urte beteko ditu urriaren 14an. Kaixo lagunak! Aurten ere 3 urtek triple salto mortal iñez ospatu nahitutt. Elkartu nerekin!!!



Zorionak **ENERITZ!** 3 urte beteko ditu urriaren 23an. Muxu haundi bat gure etxeko langileari aitaxi eta amatxiren partetik.



RAUL GARCIA eta BENAT ALTOLAGIRRE osaba-lobek urteak beteko dituzte urriaren 12an eta 16an, hurrenez hurren. Beñatek 2 urte eta Raulek baten batzuko gehiago, argazkian ematen ez duen arren. Ongi pasa!!!!



ITSASO LIZARRAGAK urteak beteko ditu urriaren 20an. Auniz urtez, monona! Amatxi, aitaxi eta Aitor osabaren partetik!



Sunbillako amatxi **XOLE MANTEROLAK eta PABLO IRAZOKIK** 82 eta 8 urte bete dituzte, urriaren 6 eta 10ean. Auniz urtez eta muxu haundi bat Alizia eta familiaren partez.



Lesakako **AIORA eta OLAIA GOIENETXE ZUBIETAK**, gure bi bihurritxoek, urtea beteko dute Urriaren 28an. Zorionak eta muxu pila bat famili guztiaren partetik.



Berako **LEIRE GOMEZ GOIETXE** neskatxa xarman-tak 9 urte bilduko ditu urriaren 18ko uzatetik. Familiaren partez, auniz urtez eta ongi-pasa!



Anizko **AIERT ZELAIETA AZKARATEK** urtea beteko du urriaren 27an. Zorionak eta muxu potolo bat gure olentzero tikiari familia guztiaren partetik.

hemen agertu nahi duzu?

egin zure erosketa

www.ttipi.net

argazki soila 4 EURO

aldizkarian Interneten

argazki bikoitza 8 EURO



Bortzirietako
Hiri Hondakinen
Mankomunitatea

Jakinarazpena

2012ko bigarren urte erdiko zabor bilketa eta tratamendu zerbitzuetako tasak kobratuko direla, ondoren seinalatzen den bezalaxe:

ORDAINTZEKO ERA

Ordainketak banketxeetan helbideratuta ez dituztenak:

Abisuan agertzen den edozein kontutan eginen da ordainketa nahi den banketxetik, abisu hirukoitua aurkeztuz.

Ordainketak banketxeetan helbideratuta dituztenak:

Kontutik zuzenean kobratuko zaie.

ORDAINTZEKO EPEA

- 2012ko azaroaren 30ean bukatuko da.
- Ordaintzen ez bada, epea 2012ko abenduaren 31ra arte luzatuko da. Luzapen horri dagokion interesa aplikatu ahal izanen da.
- Aipatutako epea pasatu ondoren, premiamenduzko exekuzio bidez %20ko errekaruarekin kobratuko da.

Bortzirietan, 2012ko urriaren 1ean

Presidentea
Miguel Maria Irigoien Sanzberro

Birziklatu

Ontziek bizitza luzea dute



Kartoizko ontziak, papera,
egunkariak, aldizkariak.



Plastikozko ontziak,
latak, brikak.



Beirazko botilak,
flaskoak, poteak.

Birziklatu

Uste ez baduzu ere, birziklatzeari esker ontziek bizi luzea dute. Baliteke zure seme-alaben bizikletan eraldatuta aurkitzea, zure jantzi polar kuttunean, irakurriko duzun hurrengo liburuan edota ureztontzi batean... Zeren, manera batera edo bertzer, birziklatzeak bizitza dakar. Eta zure laguntzarekin, denok zainduko dugu gure ingurumena.



LURRAREN EGUNA

URRIAK 28 BERA

URRIAK 27 LARUNBATA

15:30tan Tikien Lasterketa.
17:00tan Lizuniagako Igoera Iamoteneatik abiatuta.
18:30tan "Baserriak" Argazki Erakusketa Labiaga Ikastolan.
19:00tan VI. Barazki-opil Lehiaketa eta trikitilariak Alzateko Frontoian.

URRIAK 28 IGANDEA

9:00tarako Lehiaketarako barazkiak, gaztak eta sagardo botilak ekarri behar dira R. Baroja Eskolara.
10:00etan Alzaten eskulangileen azoka, elikagai eta barazki erakusketa.
10:30tan Alzateko plazan txalaparta, zeltiar musika, Irats trikitilariak.
11:00etan Bortzirietako 26.Gasna Lehiaketa eta Bera eskolako trikitilariak.
12:00tan 15. Sagardo Lehiaketa Karnaxenean eta Musika Eskolako Musikarien eta Berako Bandaren karrikabuelta.

16:00tan Alzateko Plazan DantzJolasJaia Zirka Zirkus taldearekin.
Gure Txokoako Dantzarien sailoa, Sari banaketa, Enkantea, Bertsolariak eta Dantzaldia Trikidantzekin.

*Egun guzian musika, taloak,
jaki eta edari dastatzeak.*

Euria bada ekitaldiak Alzateko frontoian eta Toki Ona Kiroldegian egingen dira.

Arlolekuak: Gure Txokoa Elkarte
Laguntzaile: Berako Kultur Batzordea

